# 21/2014 FORU ARAUA, EKAINAREN 18KOA, EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA

**(ALHAO, 74. zk., 14-7-2koa)**

## ZIOEN AZALPENA

Arabako Lurralde Historikoan lortzen diren errentek dakarten ahalmen ekonomikoaren gaineko zuzeneko karga hiru zerga handik ezartzen dute: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak, Sozietateen gaineko Zergak eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergak. Horiez gainera Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga ere ezartzen da; zerga honek pertsona fisikoek kosturik gabe lortzen dituzten ondare gehikuntzak kargatzen ditu.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 Foru Arauak Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga sartu zuen gure zerga sisteman; zerga berriak ordura arte indarrean zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren betebehar errealaren lekua hartu zuen.

Foru arau hori onartu zenetik hainbat aldiz aldatu da, eta batzuek eragin handia eduki dute beraren egituran gainera; horregatik Zergaren sistematizazio berria planteatu behar izan da,

Beste alde batetik, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga oso lotuta dago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erregulazioarekin. Hori dela eta, kontuan eduki behar da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga eraberritu eta eguneratu dituzten foru arauak onartu berri direla; izan ere, aldaketa garrantzitsuak egin dira bietan (batez ere Sozietateen gaineko Zergan) eta tratamendu berria Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko establezimendu iraunkorrei ere aplikatu behar zaie.

Arabako zuzeneko zergen berrikuntza integralerako prozesu horien helburua 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko den arautegi berria ezartzea izan da, gaur egun zerbitzu publikoen mailari eusteko eta ekonomia eta enplegua suspertzeko.

Beraz, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren arautegia eguneratu behar da eta Sozietateen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aldaketetara egokitu behar da zerga sistemako zuzeneko karga figura nagusiak goitik behera eraberritzeko.

## ATARIKO KAPITULUA

## IZAERA, APLIKAZIO EREMUA ETA ORDAINARAZPENA

### 1. artikulua. Izaera, xedea eta aplikazio eremua.

**1.** Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga zuzeneko zerga da eta honako hauek kargatzen ditu:

a) Espainiako lurraldean bizi ez diren pertsona fisikoek eta erakundeek Arabako Lurralde Historikoan lortutako errenta, foru arau honetan xedatutakoaren arabera, bertan establezimendu iraunkorrik gabe badihardute.

b) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsona fisikoek eta erakundeek Arabako Lurralde Historikoan dagoen establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errenta.

**2.** (5) Foru arau honetan xedatzen dena honako hauei aplikatuko zaie:

a) Espainiako lurraldean egoitzarik eduki ez eta Arabako Lurralde Historikoan establezimendu iraunkorrik gabe errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei eta entitateei, foru arau honetako 13. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz.

b) Espainiako lurraldean egoitzarik eduki gabe Arabako Lurralde Historikoan establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei eta entitateei, honako bi inguruabar biak gertatzen direnean izan ezik:

- Aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izatea.

- Aurreko ekitaldian egindako eragiketen ehuneko 75 gutxienez lurralde erkidean eginak izatea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak beste bi lurralde historikoetako batean edo bietan eginak izatea.

c) Espainiako lurraldean egoitzarik eduki gabe Bizkaiko edo Gipuzkoako Lurralde Historikoan establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei eta entitateei, baldin eta:

- Aurreko ekitaldiko eragiketa bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.

- Aurreko ekitaldian lurralde erkidean egindako eragiketa bolumenaren ehuneko 75 baino gutxiago izan bada.

- Aurreko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Araban egin badira edo, Araban eta zerga egoitza ez daukan beste lurralde historiko batean egin badira, eragiketa bolumenaren zatirik handiena Araban egindako eragiketena bada.

d) Espainiako lurraldean egoitzarik eduki gabe lurralde erkidean establezimendu iraunkorraren bitartez errentak lortzen dituzten pertsona fisikoei eta entitateei, baldin eta:

- Aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bada.

- Aurreko ekitaldian eragiketa bolumenaren ehuneko 75 gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan egin badira.

- Araban egindako eragiketen bolumena beste lurralde historiko bietako bakoitzean egindakoa baino handiagoa bada.

Hala ere, d) letra honetan aipatzen diren kasuetan, foru arau hau aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da zerga talde bateko kide diren entitate zergadunek, establezimendu iraunkorraren zerga egoitza lurralde erkidean dutenek, egindako eragiketa guztiak Euskal Autonomia Erkidean eginak izatea.

**3.** **(5)** Zergadunak ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren araudiko betekizunak betetzen baditu eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaintzeahautatzen badu, aukerako araubidea aplikatzeko Arabako Lurralde Historikoaren araudia hartuko da kontuan, baldin eta EAEn lortutako errenta Espainian guztira lortutako errentaren zatirik handiena bada eta Araban beste bi lurralde historikoetan baino gehiago lortu bada.

Zergadunak itzulketajasotzeko eskubidea badauka, Arabako Foru Aldundiak ordainduko du, errentak Espainiako lurraldearen barruan non lortu dituen kontuan eduki gabe.

**2. artikulua. Ordainarazpena.**

**1.** (59) Arabako Foru Aldundiak honako kasu hauetan ordainaraziko du zerga:

a) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsona fisikoek eta entitateek establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituzten errentak foru arau honetako 13. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz Arabako Lurralde Historikoan lortutzat jo behar direnean.

b) Errentak egoitza Espainiako lurraldean ez daukaten pertsona fisikoek edo entitateek lortzen dituztenean establezimendu iraunkorren bitartez:

a') Pertsona fisikoaren edo entitatearen zerga egoitza Araban badago eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan ez bada, AFAk ordainaraziko du haren zerga osoa.

b') Pertsona fisikoaren edo entitatearen zerga egoitza non dagoen kontuan eduki gabe, Arabako Lurralde Historikoan bakarrik jarduten badu eta aurreko ekitaldian egindako eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada, AFAk ordainaraziko du haren zerga osoa.

c') Zergadunak Arabako Lurralde Historikoan eta beste lurralde batzuetan (foru lurraldeak zein lurralde erkideak) jarduten badu eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada, AFAk Araban egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordainaraziko du zerga.

**2.** Zergadun batek lurralde jakin batean jarduten duela pentsatuko da baldin eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 6. artikuluan ezarritako irizpideen arabera lurralde horretan egiten baditu ondasun emateak edo zerbitzuak.

Ondasun emate eta zerbitzutzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko legerian hala definitutako eragiketak.

**3.** Eragiketen bolumena hauxe da: zergadunak, bere jardueran egindako ondasun emateak eta zerbitzuak direla eta, ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errekargua kenduta, egonez gero.

Ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioa kalkulatzeko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 6. artikuluko arauak erabiliko dira, eta proportzioa ehunekoetan emango da, bi hamartarrekin biribilduta.

Aurreko ekitaldia urtea baino laburragoa izan bada, egindako eragiketen bolumena oinarritzat hartu eta urte osoari dagokion zenbatekoa kalkulatuko da.

**4.** Jarduera hasi berria bada, lehenengo ekitaldian egindako eragiketen bolumena hartuko da aintzat; lehen ekitaldia urtea baino laburragoa izan bada, urte osoari dagokion zenbatekoa kalkulatuko da egindako eragiketen bolumena oinarritzat hartuta. Harik eta ekitaldiko eragiketen bolumena zenbatekoa izan den eta eragiketak non egin diren zehaztu arte, subjektu pasiboak jardueraren lehen ekitaldian ustez egingo dituen

eragiketen arabera aldez aurretik ezartzen dituenak hartuko dira kontuan, ondorio guztietarako.

**3. artikulua. Aplikatu beharreko arautegia.**

Zergari dagokionez, foru arau honetan xedatutakoa bete behar da. Foru arau hau interpretatzeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren arautegia hartu behar da aintzat.

**4. artikulua. Itunak eta hitzarmenak.**

Foru arau honetan ezarritakoak ez du ezertan eragotziko Espainiako barne antolamenduaren osagai bihurtu diren nazioarteko itunetan eta hitzarmenetan xedatutakoa.

## I. KAPITULUA

## ELEMENTU PERTSONALAK

**5. artikulua. Zergadunak.**

Zerga honen zergadunak dira:

a) Foru arau honetako 6. artikuluaren arabera, lurralde espainiarreko egoiliarrak izan gabe zerga honen zergapeko errentak lortzen dituzten pertsona fisikoak eta erakundeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak izan ezik.

b) Egoitza Araban edo beste lurralde batean (erkidean edo foralean) dutela, zerga honen kargapek errentak lortzen dituzten pertsona fisikoak, nazionalak zein atzerrikoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arautegian ezarritako elkarrekikotasun inguruabarretako batean egonez gero.

c) Foru arau honetako 38. artikuluan aipatzen den errenta eratxikipenaren araubidean dauden erakundeak.

**6. artikulua. Lurralde espainiarreko egoiliarra ez izatea.**

**1.** Ondoko kasuetako batean ez dauden pertsona fisikoak ez dira hartuko Espainiako lurraldeko egoiliartzat:

a) Urte naturalean 183 egun baino gehiago egotea Espainiako lurraldean. Espainiako lurralde denbora eman den zehazteko kanpoan eman diren aldi baterako egonaldiak konputatuko dira, zergadunak zerga egoitza beste herrialde batean daukala frogatu ezean. Zerga egoitza zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde batean badago, Zerga Administrazioak zergadunari eskatu ahal izango dio frogatzeko bertan eman dituela urte naturaleko 183 egun baino gehiago.

Aurreko paragrafoan aipatzen den egonaldia kalkulatzeko, ezin dira konputatu Espainiako administrazio publikoekin kulturaren arloko edo ekintza humanitarioen arloko doako lankidetzarako sinatutako akordioen bidez Espainian emandako aldiak.

b) Jarduera edo interes ekonomikoen gune nagusia edo oinarria Espainian egotea, zuzenean edo zeharka.

Kontrakoa frogatu ezean, uste izango da zergadunak ohiko etxebizitza Espainiako lurraldean daukala, baldin eta aurreko irizpideen arabera haren ezkontidea, legez banandutа ez dagoena, eta beraren kargurako adin txikiko seme-alabak Espainian bizi ohi badira.

**2.** Ondoko hauek ere ez dira Espainiako egoiliartzat hartuko elkarrekikotasunagatik: ohiko egoitza Espainian daukaten atzerritarrak, hain zuzen ere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 4. artikuluko 1. idatz zatiko a) - d) bitarteko letretan ezarritako kasuetako batean daudenak, Espainiak sinatutako nazioarteko itunetako berariazko arauak aplikatu behar ez badira.

**3.** Pertsona juridikoek eta gainerako erakundeak Espainiako lurraldeko egoiliartzat hartuko dira baldintza hauetako bat betez gero:

a) Espainiako legeen arabera eratuta egotea.

b) Sozietate egoitza Espainiako lurraldean edukitzea.

c) Zuzendaritzako egoitza efektiboa Espainiako lurraldean egotea.

Hori dela eta, erakunde baten benetako zuzendaritzaren egoitza Espainiako lurraldean dagoela pentsatuko da jarduera guztiak lurralde horretan zuzentzen eta kontrolatzen baditu.

d) Egoitza tributaziorik ez dagoen herrialde edo lurralde batean egotea, Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz, edo zerga paradisutzat jotako herrialde edo lurralde batean, baldin Zerga Administrazioak Espainiako lurraldean dagoela uste izan arren, baldin eta aktibo nagusiak, zuzenean zein zeharka, Espainiako lurraldean dauden ondasunak edo lurralde horretan betetzen edo erabiltzen diren eskubideak badira edo jarduera nagusia bertan egiten bada; salbuespena: erakunde horrek frogatzea zuzendaritza eta benetako kudeaketa herrialde edo lurralde horretan gertatzen direla, eratu eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliodunak dituela, eta funtsezko arrazoi enpresarialak baloreen edo bestelako aktiboen kudeaketa hutsetik haratago doazela.

**7. artikulua. Errenten eratxikipena.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 11. artikuluan aipatzen den errenta eratxikipenaren araubideko erakundeek lortutako errentak, bai eta jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak ere, foru arau horretako IV. tituluko VI. kapituluko 2. atalean eta foru arau honetako VI. kapituluan ezarritakoaren arabera eratxikiko zaizkie bazkideei, jaraunsleei, erkideei edo partaideei, hurrenez hurren.

**8. artikulua. Errentak banakatzea.**

Pertsona fisiko diren zergadunei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 35/2013 Foru Arauko 12. artikuluan errentak banakatzeaz xedatutakoa aplikatuko zaie.

**9. artikulua. Erantzuleak.**

**1.** Ordaindu dituen etekinei edo gordailua edo kudeaketa bere eskuetan duten ondasun edo eskubideen errentei dagozkien zerga zorren sarrera egiteari dagokionez, hurrenez hurren, zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe sortutako etekinen ordaintzaileak

edo establezimendu iraunkor bati lotu gabeko zergadunen ondasun edo eskubideen gordailuzain edo kudeatzaileak erantzungo du solidarioki.

Halako erantzukizunik ez da izango foru arau honetako 31. artikuluan aipatzen den atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharra aplikatzen denean, ez eta artikulu horretako 4. idatz zatian araututako kasuetan ere. Hala ere, atxikitzailea den aldetik erantzukizunak eduki ditzake.

**2.** Pertsona edo erakunde batek ez du etekin bat ordaindu ordainketa batean bitartekaritza lana besterik egin ez badu. Ordainketa batean bitartekaritza soilik egitea izango da kopuru bat hirugarren batek aginduta beraren kontura ordaintzea.

**3.** Zerga honen zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe sortutako etekinen ordaintzailearen kasuan, bai eta establezimendu iraunkor bati lotu gabeko ondasunen edo eskubideen gordailuzaina edo kudeatzailea bada eta zerga paradisutzat hartzen diren herrialdeetan edo lurraldeetan dauden pertsonenak edo erakundeenak badira, Zerga Administrazioaren jarduketak erantzulearekin zuzenean egin ahal izango dira. Zerga zorra galdagarria izango da eta ez da beharrezkoa izango Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 41. artikuluko 5. idatz zatian ezarritako erantzukizun deribazioko aldez aurreko administrazio egintzarik.

Gainerako kasuetan erantzukizun solidarioa Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 41. artikuluko 5. idatz zatian ezarri den bezala eskatuko da.

**4.** (11) Foru arau honen 10. artikuluaren 1. apartatuan aipatzen diren zergadunei dagozkien zerga zorrak ordaintzearenerantzule solidarioak izango dira establezimendu iraunkor baten bitartez jarduten dutenak, edo 38. artikuluko kasuetan, haien ordezkari izendatu direnak.

**10. artikulua. (11) Ordezkariak.**

**1.** Zerga honen zergadunek, Europar Batasuneko beste estatu kide batean egoiliarrak ez badira, Araban lortutako errenta aitortzeko epea amaitu baino lehen, Araban bizilekua duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute, Zerga Administrazioaren aurrean zerga honengatik dituzten betebeharrez ordezka ditzan, betiere establezimendu iraunkor baten bitartez jarduten dutenean, foru arau honen 24.2 eta 38. artikuluetan aipatzen diren kasuetan, edo, lortutako errentaren zenbatekoa eta ezaugarriak direla-eta edo Arabako lurraldean ondasun higiezin bat edukitzeagatik, Zerga Administrazioak hala eskatzen duenean.

Europako Esparru Ekonomikoa osatzen duten eta Europar Batasuneko estatu kide ez diren estatuen kasuan, aurrekoa ez da aplikatuko zerga informazioaren trukeari eta diru bilketari buruzko elkarrekiko laguntzaren gaineko araudia dagoenean, betiere otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean, Arabako Zergei buruzkoan, aurreikusitako moduan.

(12) Betebehar hau eskatu ahal izango zaie, halaber, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Zergei buruzkoak, hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera zerga informazioa benetan trukatzen ez den herrialde edo lurraldeetan bizi diren pertsona edo entitateei, baldin eta Espainiako lurraldean betetzen edo baliatzen diren ondasunen edo eskubideen titularrak badira, bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatutako baloreak alde batera utzita.

Zergadunak edo haren ordezkariak Zerga Administrazioari izendapenaren berri eman beharko dio, behar bezala egiaztatuta, izendapena egin eta bi hilabeteko epean.

Izendapena Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari jakinaraziko zaio, bertan aurkeztu behar baitute zerga honen aitorpena. Komunikazioarekin batera, ordezkariaren berariazko onarpena aurkeztuko da.

**2.** Egoiliarrak edo Europar Batasuneko beste estatu kide batean eratutako errentak esleitzeko araubidean dauden erakundeak direnean, ordezkaritza duten pertsonen bidez jardungo dute Zerga Administrazioaren aurrean, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean, Arabako Zergei buruzkoan, ezarritako legezko eta borondatezko ordezkaritzako arauen arabera.

Europar Batasuneko estatu kide ez diren Europako Esparru Ekonomikoko estatuen kasuan, aurrekoa aplikatuko da zerga informazioaren trukeari eta diru bilketari buruzko elkarrekiko laguntzari buruzko araudia dagoenean, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean, Arabako Zergei buruzkoan, aurreikusitako moduan.

**3.** Lehenengo apartatuan ezarritako izendapen betebeharra betetzen ez bada, Zerga Administrazioak establezimendu iraunkorraren edo foru arau honen 5.c) artikuluan aipatzen den zergadunaren ordezkaritzat jo ahal izango du Merkataritza Erregistroan halakotzatagertzen dena. Izendatutako edo inskribatutako ordezkaririk ez badago, edo haien izenean kontratatzeko ahalmena duen pertsona ez bada, Zerga Administrazioak halakotzat jo ahal izango du azken hori.

(12) Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera zerga informazioa benetan trukatzen ez duten herrialde edo lurraldeetan bizi diren pertsonei edo entitateei eska dakiekeen ordezkaria izendatzeko betebeharra betetzen ez bada, Zerga Administrazioak bere ordezkaria zergadunen ondasun edo eskubideen gordailuzaina edo kudeatzailea dela jo ahal izango du.

**4.** Lehenengo apartatuan aipatutako betebeharra ez betetzea tributu arloko arau hauste larritzat hartuko da, eta zehapena 2.000 euroko diruzko isun finkoa izango da.

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Zergei buruzkoak, hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, zerga informazioa benetan trukatzen ez den herrialde edo lurraldeetan bizi diren zergadunen kasuan, isun hori 6.000,00 eurokoa izango da.

(12) Ezarritako zehapena, apartatu honetan aurreikusitakoaren arabera, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 192. artikuluan xedatutakoaren arabera murriztuko da.

**11. artikulua. Zerga egoitza.**

**1.** Egoitza Espainian ez daukaten zergadunek Araban daukate zerga egoitza ondoko kasu hauetan:

a) Establezimendu iraunkorraren bitartez jardunez gero, Araban egiten badituzte administrazio kudeaketak edo negozioen zuzendaritza lanak.

Zerga egoitza non dagoen zehazterik ez badago aurreko irizpidea aplikatuta, establezimendu iraunkorraren zerga egoitza Araban dagoela pentsatuko da kasu honetan: ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan egonik, Arabako Lurralde Historikoan dagoenaren balioa beste lurralde historiko bakoitzean dagoenaren baino gehiago denean.

b) Ondasun higiezinen ondorioz sortutako errentak lortuz gero, ordezkariaren zerga egoitza Araban badago (ordezkaririk eduki ezean, ondasun higiezina Araban badago).

c) Aurreko letretan sartze ez diren kasuetan, Araban badago ez-egoiliarraren ordezkariaren zerga egoitza (ordezkaririk eduki ezean, erantzule solidarioaren zerga egoitza).

**2.** Zergadunak ordezkaririk izendatu ez badu, erantzule solidarioaren zerga helbidean egiten diren jakinarazpenek zergadunari berari egindakoenen balio bera edukiko dute eta ondorio eurak sortuko dituzte. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko hamabosgarren xedapen gehigarriko 3. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorrita, egoitza zerga informazioa trukatzen ez den herrialde edo lurralde batean daukaten pertsonek eta erakundeek ordezkaririk izendatzen ez badute eta ez badago erantzule solidariorik, aurrean aipatutako balio bera izango dute haien titulartasuneko higiezinetan egiten diren jakinarazpenek.

## II. KAPITULUA

## ZERGAREN KARGAPEAN EGOTEA

### 12. artikulua. Zerga egitatea.

**1.** Zerga egitatea zerga honen zergadunek Araban errentak lortzea da (eskudirutan zein gauzatan), hurrengo artikuluan ezarriko den bezala.

**2.** Zerga honen kargapeko errentak sor ditzaketen ondasunen, eskubideen eta zerbitzuen prestazioak eta lagapenak ordaindutzat hartuko dira, kontrako frogarik egon ezean.

**3.** Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren kargapeko errentak ez daude zerga honen kargapean.

### 13. artikulua. Araban lortutako errentak.

**1.** Arabako lurraldean lortutzat edo sortutzat joko dira bertan dagoen establezimendu iraunkorraren bidez eta foru arau honetako 1. artikuluko 2. idatz zatiko b), c) eta d) letretan bildutako erregelen arabera lortuak; erregela horiek pertsona fisikoei zein erakundeei aplikatuko zaizkie.

Ondoko kasuan Araban egoitza ez daukan pertsona fisikoak edo erakundeak establezimendu iraunkor baten bidez bertan jarduten duela pentsatuko da: edozein tituluren bidez instalazio edo lantokiren bat badauka etenik gabe edo modu iraunkorrean eta bertan egiten badu bere jarduera osoa edo haren zati bat, edo bertan jarduten badu beraren izenean eta beraren kontura kontratatzeko baimena daukan eta horretaz sarri baliatzen den agente baten bitartez.

Hain zuzen ere, hauexek dira establezimendu iraunkorrak: zuzendaritzaren egoitzak, sukurtsalak, bulegoak, fabrikak, lantokiak, biltegiak, dendak eta bestelako establezimenduak, meatzeak, petrolio edo gas putzuak, harrobiak, nekazaritza, basozaintza edo abeltzaintzako ustialekuak, baliabide naturalak esploratzen edo erauzten diren tokiak, eta sei hiletik gora irauten duten eraikuntza, instalazio edo muntaketa obrak.

**2.** Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako ondoko errenta hauek hartuko dira Araban lortu edo sortutako errentatzat:

a) Ustiapen ekonomikoen etekinak, jarduerak Arabako lurraldean egiten direnean.

b) Azterlanak egitea, proiektuak egitea, laguntza teknikoa ematea edo kudeaketan laguntzea bezalako zerbitzuek eta profesional zerbitzuek sortzen dituzten etekinak, zerbitzua Arabako lurraldean egiten edo erabiltzen bada. Arabako lurraldean erabilitako zerbitzuak hauexek izango dira: Araban egiten diren enpresa jarduaretan edo jarduera profesionaletan erabiltzen direnak edo lurralde horretan dauden ondasunekin egiten direnak. Zerbitzuaren zati bat bakarrik erabili bada Arabako lurraldean egindako jarduera ekonomiko baterako, Araban egindako jarduerak sortuko zatia baino ez da hartuko Araban lortutzat.

Zerbitzua ez bada erabiltzen jarduera egiten den tokian, non erabili den hartuko da kontuan.

c) Artistek eta kirolariek eurek Arabako lurraldean jarduteak zuzenean zein zeharka sortzen dituen etekinak, edo jarduketa horiekin lotutako gainerako jarduerek sortzen dituztenak, nahiz eta artistak edo kirolariak ez beste pertsona batek jaso.

d) Arabako lurraldean besteren kontura lan eginez zuzenean zein zeharka lortzen diren etekinak.

Hori dela eta, lana Arabako lurraldean egintzat joko da kasu hauetan: Arabako Administrazioak ordainsari publikoak ematen dituenean; jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoek euren jardueretan ordainsariak ematen dituztenean; egoitza Arabako lurraldean daukaten erakundeek edo Araban dauden establezimendu iraunkorrek ordainsariak ematen dituztenean nazioarteko trafikoan dabilen itsasontzi edo aireontzi batean egiten den lanarengatik.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko kasu honetan: lan osoa atzerrian egiten bada eta etekinak atzerriko zerga pertsonal baten kargapean badaude.

e) Arabako lurraldean dauden enpleguen ondoriozko pentsioak eta antzeko prestazioak, egoitza Araban daukan pertsona edo erakunde batek edo Araban dagoen establezimendu iraunkor baten bidez ari den pertsona edo erakunde batek ordainduz gero.

Pentsiotzat joko dira lehenagoko enplegu batengatik jasotako ordainsariak, langileak berak zein beste pertsona batek jasotzea gorabehera.

Aurreko horien antzeko prestaziotzat joko dira, bereziki, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2012 Foru Arauko 18. artikuluko a) eta i) letretan ezarritakoak.

f) Zerga egoitza Araban daukan erakunde baten administratzaileen, Administrazio Kontseiluko kideen edo kontseilu horren ordez ari diren batzordeetako edo ordezkaritza-organoetako kideen ordainsariak (zenbatekoak artikulu honetako 4. idatz zatian finkatu dira).

e) Zerga egoitza Araban daukaten euskal erakunde publikoen funts propioetako partaidetzen ondoriozko dibidenduak eta bestelako etekinak, eta erakunde pribatuen funts propioetako partaidetzen ondoriozkoak (zenbatekoak artikulu honetako 4. idatz zatian finkatu dira).

h) Kapital higigarriaren korrituak, kanonak eta bestelako etekinak:

a’) Zerga egoitza Araban daukaten pertsona fisikoek edo euskal erakunde publikoek ordaindutakoak eta erakunde pribatuek edo establezimendu iraunkorrek ordaindutakoak (zenbatekoak artikulu honetako 4. idatz zatian finkatu dira).

b’) Araban erabilitako kapital prestazioen ordainsariak izanez gero.

Irizpide horiek bat ez datozenean, kapitala non erabili den hartuko da kontuan.

Ondoren adieraziko direnak erabiltzeagatik edo beraien erabilpena emateagatik ordaintzen diren kopuruak, direnak direlakoak, kanon edo erregaliatzat hartuko dira:

- Literatura lanen, lan artistikoen eta lan zientifikoen gaineko eskubideak, film zinematografikoen gainekoak barne.

- Patenteak, fabrika edo merkataritza markak, marrazkiak edo modeloak, planoak, formulak eta prozedura sekretuak.

- Programa informatikoen gaineko eskubideak.

- Industriako, merkataritzako edo zientzien arloko esperientziei buruzko informazioa.

- Laga daitezkeen eskubide pertsonalak (irudi eskubideak, esaterako).

- Ekipo industrialak, merkataritzakoak eta zientifikoak.

- Aurrekoen antzeko eskubide guztiak.

Bereziki, halakotzat joko dira apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateginaren, Patenteei buruzko martxoaren 20ko 11/1986 Legearen eta Markei buruzko abenduaren 7ko 17/2001 Legearen itzalpeko eskubideak erabiltzeagatik edo haien erabilpena emateagatik ordaintzen diren kopuruak.

i) Araban dauden ondasun higiezinen edo horiei lotutako eskubideen ondorioz zuzenean edo zeharka sortzen diren etekinak.

j) Arabako lurraldean dauden hiri ondasun higiezinen titular diren pertsona fisiko zergadunei egotzitako errentak.

k) Ondare irabaziak:

a’) Egoitza Araban daukaten pertsonek edo euskal erakunde publikoek jaulkitako baloreen ondoriozkoak eta erakunde pribatuek jaulkitako baloreen ondoriozkoak (zenbatekoak artikulu honetako 4. idatz zatian ezarri dira).

b’) Araban dauden beste ondasun higigarri batzuen (baloreak ez beste batzuk) ondoriozkoak eta Araban bete behar diren edo erabiltzen diren eskubideen ondoriozkoak.

c’) Araban dauden ondasun higiezinen ondoriozkoak eta Araban bete behar diren edo erabiltzen diren eskubideen ondoriozkoak. Hain zuzen ere, letra honetan sartzen dira:

- Aktiboan batez ere Euskadin dauden ondasun higiezinak dauzkaten erakundeen (egoiliar zein ez-egoiliar) eskubideek eta partaidetzek ematen dituzten ondare

irabaziak, Araban dauden ondasun higiezinen balioa beste lurralde historiko bakoitzean daudenena baino gehiago izanez gero.

- Erakunde egoiliar zein ez-egoiliar baten eskubideak edo partaidetzak, titularrari Araban dauden ondasun higiezinak gozatzeko eskubidea ematen diotenak, eskualdatuta lortzen diren ondare irabaziak.

Ondasun higiezinak Araban eta beste lurralde historiko batzuetan badaude, Araban lortutzat hartu behar den kopurua artikulu honetako 4. idatz zatian finkatu da.

d’) Zergadunaren ondareari Arabako lurraldean dauden ondasunak edo bertan bete behar diren edo erabiltzen diren eskubideak atxikita sortzen diren ondare irabaziak, are aurreko eskualdaketa baten ondoriozkoak ez direnean ere (esaterako, jokoaren irabaziak).

**3.** Aurreko idatz zatian azaldutako irizpideen arabera errenta bat aldi berean Araban eta beste lurralde batean lortutzat jo behar bada, haren gaineko karga Arabak ezarri behar du kasu honetan: ordaintzailea pertsona fisikoa bada eta beraren ohiko egoitza Araban badago. Aldiz, ordaintzailea pertsona juridikoa edo establezimendu iraunkorra bada, artikulu honetako hurrengo idatz zatian xedatutakoa aplikatu behar da.

**4.** (5) Aurreko 2. idatz zatiko f) eta g) letretan, h) letrako a') puntuan eta k) letrako a') eta c') puntuetan aipatzen diren kasuetan eta 3. idatz zatian aipatzen den kasuan, entitate pribatuek edo establezimendu iraunkorrek ordaintzen dituzten errentetatik honako kopuru hau Arabako lurraldean lortutzat edo sortutzat hartuko da:

a) Entitateak edo establezimendu iraunkorrak zerga Araban soilik ordaintzen badu, ordaintzen dituen errenten guztirako zenbatekoa.

b) Entitateak edo establezimendu iraunkorrak zerga Arabako Zerga Administrazioari eta beste zerga administrazio batzueiordaintzen badie, Araban egindako eragiketen proportzioari dagokion errenten zatia.

Hala ere, letra honetan aipatzen diren kasuetan, likidazioa ez-egoiliarraren ordezkari gisa aurkezten duen pertsona, entitatea edo establezimendu iraunkorra ikuskatzeko eskumena Arabako Foru Aldundiak badauka, Arabako Zerga Administrazioak edukiko du etekin guztiak kargatzeko eta bidezko itzulketak egiteko eskumena. Nolanahi ere, beste administrazioei konpentsazioak eman beharko zaizkie lurralde bakoitzean entitate ordaintzaileak egindako eragiketen proportzioari dagokion errenta zatiagatik.

**5.** Errenta kontzeptu bakoitza bere sorburuaren arabera kalifikatzeko artikulu honetan xedatutakoa aplikatu behar da; bestela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

**14. artikulua. Salbuetsitako errentak.**

**1.** Errenta hauek salbuetsita daude:

a) (13) Pertsona fisikoek jasotzen dituzten diru kopuru hauek: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautu eta sozietateen gaineko zergari, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari eta ondarearen gaineko zergari buruzko legeak partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 7. artikuluan aipatzen diren errentak eta 42. artikuluaren 3. apartatuan aipatzen diren lanaren etekinak.

b) (2) (3) (9) Norberaren kapitalak hirugarrenei lagata lortzen diren interesak eta gainerako etekinak (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 35. artikuluan aipatzen direnak), bai eta establezimendu iraunkorrik gabe lortutako ondasun higigarrietatik eratorritako ondare irabaziak ere, Europar Batasuneko beste estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu bateko egoiliarrek edo Europar Batasuneko beste estatu kide batean edo Esparru Ekonomikoko beste estatu batean dauden horien establezimendu iraunkorrek lortutakoak.

Europar Batasuneko estatu kide ez diren Europako Esparru Ekonomikoko estatuen kasuan, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta zerga informazioaren truke eraginkorra badago, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren hamabosgarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan aurreikusitako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko ondoko inguruabarretan dauden erakundeen akzioak, partaidetzak edo bestelako eskubideak eskualdatuta lortzen diren ondare irabaziei:

1. Erakundearen aktiboan batez ere Euskadiko ondasun higiezinak badaude, zuzenean edo zeharka.

2. Zergaduna pertsona fisikoa izanik, eskualdaketa egin aurreko hamabi hiletan zehar noizbait erakunde baten kapitalean edo ondarean ehuneko 25eko partaidetza eduki badu, edo hortik gorakoa, zuzenean zein zeharka.

3. Zergaduna egoiliar ez den erakundea izanez gero, eskualdaketak ez baditu betetzen Sozietateen gaineko Zergaren Legeak 21. artikuluan ezartzen duen salbuespena aplikatzekobaldintzak.

c) Zor Publikoak ematen dituen etekinak, establezimendu iraunkorrik gabe lortuz gero.

d) Egoiliar ez diren pertsona fisikoek eta erakundeek establezimendu iraunkorrik gabe Espainian jaulkitzen dituzten baloreek sortzen dituzten errentak, ordainketen agente gisa diharduen edo baloreen jaulkipenean edo eskualdaketan bitartekari lanak egiten dituen finantza erakundearen egoitza non dagoen kontuan hartu gabe.

Hala ere, baloreen titularra establezimendu iraunkorra bada, aurreko paragrafoan aipatutako errentak zerga honen kargapean daude; gainera, behar den kasuetan konturako atxikipenak aplikatuko dizkie baloreen gordailuzain diharduen finantza erakunde egoiliarrak.

e) Ez-egoiliarren kontuen etekinak, hain zuzen ere zerga honen zergadunei ordaintzen zaizkienak. Honelako etekinak Espainiako Bankuak edo atzerriko transakzio ekonomikoei buruzko arautegian aipatzen diren erakunde erregistratuetako batek establezimendu iraunkor bati ordaintzen badizkio, ez daude salbuetsita.

f) (2) Nazioarteko itsas nabigazioan edo aire nabigazioan erabilitako edukiontziak, kasko soileko itsasontziak eta aireontziak establezimendu iraunkorrik gabe errentatuta, lagata edo eskualdatuta lortzen diren errentak.

Aireontziei dagokienez, kasu honetan ere aplikatuko da salbuespena: konpainia errentariak erabiltzen dituen hegazkinen hegaldi guztietako guztirako distantziaren ehuneko 50 baino gehiago nazioarteko ibilbideetan egiten denean.

g) (2) (9) Espainiako lurraldean egoiliartutako eskumendeko sozietateek Batasuneko beste estatu batean egoiliartutako sozietate nagusiei edo hauek Batasuneko beste estatu batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei banatzen dizkieten mozkinak, ondokoak gertatuz gero:

1. Bi sozietateak Batasuneko estatuetan erakunde juridikoen mozkinak kargatzen dituzten zergetako baten kargapean egotea, eta hartatik salbuetsi gabe (Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/UE Zuzentaraua, Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusiei eta eskumendekoei aplikatu beharreko araubideari buruzkoa, 2.c) artikulua), eta establezimendu iraunkorrak ezarrita dauden estatuan zergapean egotea eta salbuetsi gabe.

2. Mozkinaren banaketa ez izatea eskumendeko sozietatearen likidazioaren ondorioa.

3. Bi sozietateek edukitzeaKontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/UE Zuzentarauaren eranskinean ezartzen diren formetako bat (zuzentarau horretan Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta eskumendekoei aplikatu beharreko araubidea ezarri zen; Kontseiluaren 2014ko uztailaren 8ko 2014/86/UE Zuzentarauak aldatu zuen).

Sozietate nagusitzat hartuko dira beste baten kapitalean, zuzenean zein zeharka, gutxienez ehuneko 5eko partaidetza dutenak. Beste sozietatea nagusiaren eskumendekoa izango da. Banatzen den mozkina eska daitekeen egunaren aurreko urte osoan eduki behar da partaidetza edo, bestela, urtebete pasatu arte eutsi behar zaio.

Epea zenbatzeko kontuan hartuko da, halaber, partaidetza hori Merkataritza Kodeko 42. artikuluan sozietate talde bereko kide izateko aipatzen diren inguruabarrak betetzen dituzten beste erakunde batzuek etenik gabe eduki duten aldia, egoitza non duten eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra zein den kontuan hartu gabe. Kasu horretan, ordaindutako zerga kuota itzuli egingo da epe hori igaro ondoren.

Egoitza non dagoen Batasuneko kide den estatuko legeriaren arabera zehaztuko da, zergapetzebikoitzaren aurkako itunetan ezarritakoa gorabehera.

Aurrean ezarritakoa gorabehera, adierazi ahal izango da, elkarrekikotasuna baldintza jarrita, letra honetan ezarritakoa ondokoei ere aplikatu ahal izango zaiela: zuzentarauaren eranskinean ezarritako forma juridikoetako bat ez duten eskumendeko sozietateei eta Espainiako egoiliar den eskumendeko sozietate batek ehuneko 5etik gorako partaidetza duen sozietate nagusiari emandako dibidenduei, gainerako baldintzak betez gero.

Letra honetan ezarritakoa ez da aplikatuko sozietate nagusiaren boto eskubide gehienak, zuzenean zein zeharka, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren hamabosgarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan aurreikusitakoaren arabera zerga arloko informazio truke eraginkorra duten Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatuetako egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo juridikoek badituzte, salbu eta haren eraketa eta operatiboa baliozko arrazoi ekonomikoen eta enpresa arrazoi substantiboen ondorio badira.

Letra honetan xedatutakoa Espainiako lurraldean egoiliartutako eskumendeko sozietateek Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batean egoiliartutako sozietate nagusiei edo hauek Batasuneko beste estatu batzuetan dituzten

establezimendu iraunkorrei banatzen dizkieten mozkinei ere aplikatuko zaie, baldintza hauek betez gero:

1. Sozietate nagusiak egoitza daukan Europako Esparru Ekonomikoko estatuarekin zerga informazioaren truke eraginkorra egotea, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak hamabosgarren xedapen gehigarriko 3. apartatuan ezartzen duenarekin bat etorriz.

2. Bi sozietateak Batasuneko estatuetan erakunde juridikoen mozkinak kargatzen dituzten zergen antzeko baten kargapean egotea eta hartatik salbuetsita ez egotea (Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/UE Zuzentaraua, 2.c) artikulua; Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta eskumendekoei aplikatu beharreko araubideari buruzkoa), eta establezimendu iraunkorrak ezarrita dauden estatuan zergapean egotea, eta salbuetsi gabe.

3. Europako Esparru Ekonomikoko estatu bateko egoiliar den sozietate nagusiaren forma Kontseiluaren 2011ko ekainaren 30eko 2011/96/UE Zuzentarauaren eranskinean ezarritakoetako baten antzekoa izatea (zuzentarau horretan Batasuneko estatu desberdinetan ari diren sozietate nagusi eta eskumendekoei aplikatu beharreko araubidea ezarri zen).

4. Letra honetan ezarritako gainerako betekizun guztiak betetzea.

h) (2) Espainiako bigarren mailako balore merkatu ofizialetan egiten diren balore eskualdaketei edo inbertsio funtsetako partaidetzen itzulketei esker Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik gabe ari diren pertsona fisiko edo erakunde ez-egoiliarrek lortzen dituzten errentak, baldin eta egoitza daukaten estatuak Espainiarekin zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmena, informazioa trukatzeko klausula daukana, sinatuta badauka.

i) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 33., 34. eta 35. artikuluetan eta hamalaugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera zerga oinarrian sartu gabeko errenta jakin batzuen kargura banatutako mozkinak: partaidetza hartutako sozietateak atzerrian egindako jardueren ondoriozko errentak, jasotzailea Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den pertsona fisikoa edo erakundea izanez gero. Hori dela eta, banatu den lehen mozkina zerga oinarrian sartu gabeko errentetatik datorrela pentsatuko da.

Letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko mozkinaren jasotzailearen egoitza zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde batean dagoenean.

Mozkina banatzen duen erakundeak memorian aipatu beharko du zein den zerga oinarrian sartu gabeko errenten zenbatekoa.

j) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen testu bateginak (martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak) 14. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoaren arabera salbuetsita dauden errentak.

k) Pertsona fisikoek herri administrazioetatik jasotzen dituzten bekak eta bestelako ditu kopuruak, baldin eta kultura, hezkuntza eta zientzia alorrean izenpeturiko nazioarteko lankidetza akordio eta hitzarmenen ondorioz ordaindu edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen testu bateginak (martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak) 14.1.b) artikuluan ezarritako nazioarteko lankidetzari buruzko urteko planaren indarrez jasotzen badira.

l) (2)

m) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginean araututakoak bezalako pentsio planek, Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliartutakoek, establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituzten mozkinetako dibidenduak eta partaidetzak, bai eta erakunde horiek Europar Batasuneko beste estatu batzuetan dauden establezimendu iraunkorren bitartez lortzen dituzten mozkinetakoak ere.

Araututakoak bezalako funtsak dira ondoko betekizunak betetzen dituzten gizarte aurreikuspeneko erakundeak:

- Erakundearen xede bakarra erretiratu, hil edo ezinduta edo mendekotasunean geratu ondoren onuradunei prestazio osagarria ematea izan behar da, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bategineko 6. artikuluko 6. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz (testu bategin hori azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

- Enpresaren ekarpenak prestazioa jasoko duen partaideari egotzi behar zaizkio zergen ondoreetarako; hari modu ezeztaezinean eman behar zaio prestazioa noizbait jasotzeko eskubidea.

- Erakundeak lehentasuneko zerga araubidea eduki behar du, hain zuzen ere ekarpenen eta enpresen kontribuzioen gaineko zerga ezarpena geroratzeko aukera ematen duena. Araubide horretan ekarpen eta kontribuzio guztiak, bai eta haien kudeaketaren ondoriozko etekin guztiak ere, prestazioa jasotzen denean kargatu behar dira.

Letra honetan xedatutakoa hauei ere aplikatuko zaie: Espainiarekin nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmena (informazioa trukatzeko klausula daukana) edo zergei buruzko informazioa trukatzeko akordioa sinatuta duten Europako Esparru Ekonomikoko estatuetan egoiliartutako pentsio funtsei.

n) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/CE Zuzentarauak araupetutako talde inbertsioko erakundeek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako dibidenduak eta mozkin partaidetzak (zuzentarau horren bidez balore higigarrietako talde inbertsioko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dira). Nolanahi ere, salbuespen honen aplikazioak inolaz ere ezin du ekarri ordaindu beharreko kopurua errentei egoitza Espainiako lurraldean duten talde inbertsioko erakundeei dagokien Sozietateen gaineko Zergaren tasa aplikatuta sortuko litzatekeena baino gutxiago izatea.

Letra honetan xedatutakoa hauei ere aplikatuko zaie: Espainiarekin nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmena (informazioa trukatzeko klausula daukana) edo zergei buruzko informazioa trukatzeko akordioa sinatuta duten Europako Esparru Ekonomikoko estatuetan egoiliartutako talde inbertsioko erakundeei.

o) Egoitza Espainiako lurraldean duten sozietateek edo Europako Batasuneko kide den estatu bateko egoiliar diren erakundeek Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkorrek egoitza Batasuneko beste estatu batean duten sozietateei edo Batasuneko kide den estatu bateko egoiliar direnek Batasuneko beste estatu batzuetan dituzten establezimendu iraunkorrei ordaintzen dizkieten kanonak edo erregaliak, ondoko inguruabarrak gertatzen direnean:

1. Bi sozietateak Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/49/CE Zuzentarauko 3. artikuluko a) letrako iii) zenbakian aipatutako zergen kargapean egotea eta haietatik salbuetsita ez egotea (zuzentarau hori Batasuneko estatuetako sozietate elkartuen arteko korritu eta kanon ordainketei aplikatu beharreko zerga araubideari buruzkoa da).

2. Bi sozietateek edukitzea Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/49/CE Zuzentarauaren eranskinean ezarritako formetako bat (zuzentarau hori Batasuneko estatuetako sozietate elkartuen arteko korritu eta kanon ordainketei aplikatu beharreko zerga araubideari buruzkoa da).

3. Bi sozietateak Europar Batasunean edukitzea zerga egoitza eta errentaren zergapetze bikoitza saihesteko hirugarren estatu batekin sinatutako hitzarmen bati dagokionez hirugarren estatu horretako egoiliar ez izatea.

4. Bi sozietateak elkartuta egotea. Hori dela eta, bi sozietate elkartutzat joko dira hauetako bat gertatzen denean: batak bestearen kapitalean gutxienez ehuneko 25eko partaidetza edukitzea zuzenean; hirugarren batek bien kapitalean gutxienez ehuneko 25eko partaidetza edukitzea zuzenean.

Partaidetza hori eten gabe eduki behar izan da etekina ordaindu den egunaren aurreko urtean, edo bestela egun horretatik aurrera urtea betetzeko falta den aldian eduki beharko da.

5. Bidezkoa denean, kopuru horiek kenkaridunak izatea kokatuta dagoen estatuan etekinak ordaintzen dituen establezimendu iraunkorrerako.

6. (2) Sozietateak bere onurarako jasotzea ordainketa horiek eta ez, ordea, bitartekari soil gisa edo beste pertsona edo sozietate baten agente baimendu moduan; eta, establezimendu iraunkorra bada, berak jasotako kopuruak benetan lotuta egotea bere jarduerarekin, eta diru sarrera konputagarria izatea kokatuta dagoen estatuan zerga oinarria kalkulatzeko.

o) letran ezarritakoa ez da aplikatuko etekinak jasotzen dituen sozietatearen boto eskubide gehienak Europako Batasuneko estatuetako egoiliar ez diren pertsona fisikoek edo juridikoak badituzte, zuzenean zein zeharka, salbuespen honekin: eratzeko eta jarduteko arrazoi ekonomiko baliodunak eta funtsezko enpresa arrazoiak egon badira.

**2.** Inoiz ere ez zaie aplikatuko aurreko idatz zatiko b), h) eta l) letretan xedatutakoa zerga paradisutzat hartzen diren herrialde edo lurraldeen bitartez lortzen diren etekinei eta ondare irabaziei.

Halaber, aurreko idatz zatiko g) letran ezarritakoa ez da aplikatuko sozietate nagusiaren zerga egoitza edo establezimendu iraunkorra zerga paradisutzat hartzen den herrialde edo lurralde batean dagoenean.

**15. artikulua. Kargapean egoteko moduak eta lotutako eragiketak.**

**1.** Arabako Lurralde Historikoan dagoen establezimendu iraunkorraren bidez errentak lortzen dituzten zergadunek establezimendu horri egotz dakizkiokeen errenta guztien gaineko karga jasango dute, errenta non lortu diren gorabehera, foru arau honetako III. kapituluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Establezimendu iraunkorren bitartekotzarik gabe errentak lortzen dituzten zergadunek bereiz ordainduko dute zerga hau, kargapeko errentaren guztiko edo zati bateko

sortzapenaren arabera, horietan konpentsaziorik bat ere jaso ezin izango dutelarik eta foru arau honetako IV. kapituluan xedatu den bezala.

**2.** Zerga honen zergadunek eurekin lotutako pertsonekin edo erakundeekin egiten dituzten eragiketei Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 42 46 bitarteko artikuluetan ezarritako xedapenak aplikatuko zaizkie.

Hori dela eta, zergadunari lotutako pertsonak eta erakundeak zein diren Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 42. artikuluko 3. idatz zatian ezarri da. Nolanahi ere, ondokoak lotutzat joko dira: Arabako Lurralde Historikoan dagoen establezimendu iraunkorra eta beraren egoitza zentrala, egoitza zentralaren beste establezimendu iraunkor batzuk eta egoitza zentralarekin edo beraren establezimendu iraunkorrekin lotutako beste pertsona eta erakunde batzuk, Espainiako lurraldean daudenak zein atzerrian daudenak.

Edonola ere, errentak establezimendu iraunkorren bitartez lortzen dituzten zergadunek kengarriak izan daitezkeen zuzendaritza gastu eta administrazio gastu orokorren balorazioa zehazteko eska diezaiokete Zerga Administrazioari, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 5. artikuluko 3 5 bitarteko idatz zatietan xedatutakoarekin bat etorriz.

## III. KAPITULUA

## ESTABLEZIMENDU IRAUNKORREN BITARTEZ LORTUTAKO ERRENTAK

### 16. artikulua. Establezimendu iraunkorrei egotz dakizkiekeen errentak.

**1.** Componen la renta imputable al establecimiento permanente los siguientes conceptos:

a) Establezimendu iraunkorrak egiten dituen jardueren edo ustiapen ekonomikoen etekinak.

b) Establezimendu iraunkorrari lotutako ondare elementuek sortutako etekinak.

c) Establezimendu iraunkorrari lotutako ondare elementuek sortutako ondare irabaziak edo galerak.

Establezimendu iraunkorrari lotutako ondare elementutzat hartzen dira establezimenduaren xedea den jardueraren garapenari funtzionalki lotutakoak.

Erakunde baten funts propioetako partaidetza ordezkatzen duten aktiboak establezimendu iraunkorrari lotutako ondare elementutzat hartuko dira establezimendua Merkataritza Erregistroan erregistratutako sukurtsala denean eta arauz jasotako beharkizunak betetzen direnean.

Ondorio horietarako, lotutako ondare elementutzat hartuko dira lotura ezabatu ondoko hiru zergaldietan eskualdatzen diren elementuak.

**2.** Aldez aurretik zergadunak berak inportatutako ondasunak berriz esportatuz gero:

a) Ez da inolako ondare aldaketarik gertatu, erabilera aldian egindako ordainketei aplika dakiekeen tratamendua gorabehera, baldin eta ondasunak ibilgetuko elementuak badira eta aldi baterako inportatu badira.

b) Establezimendu iraunkor batek egiten dituen jardueretan erabiltzeko eskuratutako ibilgetuko elementuak badira, ez dago ondare aldaketarik.

c) Ondasunak izakintzat hartzen diren elementuak badira, jarduera edo ustiapen ekonomiko baten etekina gertatu da, positiboa edo negatiboa.

**17. artikulua. Establezimendu iraunkor bat baino gehiago.**

**1.** Zergadun batek hainbat jarduera gune badauzka Espainiako lurraldean, establezimendu iraunkor desberdinak direla pentsatuko da eta ondorioz bereiz kargatuko dira ondoko kasuetan:

a) Establezimenduek garbi bereizteko moduko jarduerak egiten badituzte.

b) Jardueren kudeaketa bereiz egiten bada.

**2.** Inolaz ere ezin dira konpentsatu establezimendu iraunkor desberdinen arteko errentak.

**18. artikulua. Zerga oinarria zehaztea.**

**1.** Establezimendu iraunkorraren zerga oinarria Sozietateen gaineko Zergari buruzko araubide orokorraren xedapenen arabera zehaztuko da, hurrengo letretan xedatutakoa eragotzi gabe:

a) Zerga oinarria kalkulatzeko ez dira kengarriak izango establezimendu iraunkorrak etxe zentralari edo bere establezimendu iraunkorretako bati kanon, korritu edo komisio kontzeptuan egindako ordainketak, laguntza teknikoko zerbitzuen edo ondasun edo eskubideen erabilera edo lagapenen kontraprestazioan ordainduta daudenean.

Aurrean xedatutakoa gorabehera, atzerriko banketxeen establezimendu iraunkorrek beren etxe zentralari edo beste establezimendu iraunkorrei jarduera burutzeko egiten dizkieten korritu ordainketak kengarriak izango dira.

b) Zerga oinarria kalkulatzeko establezimendu iraunkorrari dagozkion zuzendaritza eta administrazio gastu orokorren zentzuzko zatia kengarria izango da, ondokoak betez gero:

a’) Establezimendu iraunkorraren kontabilitate egoeretan islatu badira.

b’) Zenbatekoak, irizpideak eta banaketa moduluak agertu behar dira autolikidazioarekin batera aurkeztutako memorian.

c’) Hartutako egozketa irizpideen zentzuzkotasuna eta jarraipena.

Egozketa irizpideen zentzuzkotasuna betetzat joko da irizpide horiek establezimendu iraunkorrak egindako faktoreen erabileran eta faktore horien kostu osoan oinarrituta badaude.

Aurreko paragrafoan adierazitako irizpidea aplikatu ezin bada, egozketa ondoko magnitude hauetako baten erlazioaren arabera egin daiteke:

- Negozio kopurua.
- Zuzeneko kostuak eta gastuak.

- Jarduera edo ustiapen ekonomikoei lotutako ibilgetu materialeko elementuetan batez beste egindako inbertsioa.

- Jarduera edo ustiapen ekonomikoei lotutako elementuetan batez besteko egindako inbertsioen guztirako zenbatekoa.

Idatz zati honen arabera ken daitezkeen zuzendaritza eta administrazio gastu orokorren zehaztapenerako Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 45. artikuluko 3 5 bitarteko idatz zatietan ezarritako prozedura aplikatu daiteke, arauz ezartzen den bezala.

c) Establezimendu iraunkorrari zuzenean zein zeharka lotutako erakundearen kapital propioen kostuari dagozkion kopuruak ezin dira egotzi.

d) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko IV. tituluko 38. eta 47. artikuluetan eta V. kapituluan xedatutakoa ezin da aplikatu.

e) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 13. artikuluan aipatzen diren mikroenpresa, enpresa txiki eta enpresa ertainentzat ezarritako espezialitateak aplikatuko dira, baldin eta establezimendu iraunkorraren parte den erakunde ez-egoiliarra aurrean aipatutako artikulu horren arabera ez bada mikroenpresa, ez enpresa txikia, ez enpresa ertaina.

**2.** Establezimendu iraunkorrak bere etxe zentralarekin edo zergadunaren beste establezimendu iraunkorrekin, Espainiako lurraldean zein atzerrian egon, edo hari lotutako beste sozietate edo pertsona batzuekin egindako eragiketak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 42 46 bitarteko artikuluetako xedapenekin bat etorriz baloratuko dira.

**3.** Establezimendu iraunkorrak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 55. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz konpentsatu ahal izango ditu bere zerga oinarri negatiboak.

**4.** Establezimendu iraunkor batek egindako eragiketek sarrerak ekarrik dituen merkataritzako ziklo osoa ixten badute, ziklo hori zergadunak edo zergadunaren establezimendu batek edo hainbat establezimenduk itxi badu, kontraprestaziorik bat ere sortu gabe, establezimendu iraunkorrak sortutako gastuen estaldurari dagozkionak alde batera utzita, eta oso-osorik edo zati batean zergadunaren berarenak ez diren ekoizpen edo zerbitzuetarako erabiltzen ez badira, erregela hauek ezarriko dira:

a) Establezimendu iraunkorraren sarrerak eta gastuak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 42 46 bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera baloratuko dira, eta zerga zorra Sozietateen gaineko Zergaren araubide orokorrean eta artikulu honetako aurreko idatz zatietan xedatutakoa ezarri beharreko arauen arabera zehaztuko da.

b) Modu subsidiarioan erregela hauek aplikatuko dira:

a’) Zerga oinarria Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ondorio hauetarako adierazten duen ehunekoa establezimendu iraunkorraren xedeko jardueraren garapenean egiten diren gastu guztiei aplikatuz kalkulatu behar da. Kopuru horri enpresaren xedekoak ez diren sarrera gehigarrien zenbateko osoa gehituko zaio, hala nola, korrituak edo kanonak, eta establezimenduari lotutako ondare elementuek sortutako ondare irabaziak eta galerak.

Erregela hau aplikatzeko, establezimendu iraunkorraren gastuak osorik konputatuko dira, inolako murrizketarik ez konpentsaziorik egin gabe.

b’) Kuota osoa kalkulatzeko zerga oinarriari karga tasa orokorra aplikatu behar zaio; ez da onartuko araubide orokorreko kenkaririk aplikatzea.

**5.** Eraikuntza, instalazio edo muntaketa obrak, obra horien iraupena hamabi hilabetez gorakoa bada, aldiko edo denboraldiko jarduera edo ustiapen ekonomikoak edo natur baliabideen ustiaketa jarduketak egiten dituzten establezimendu iraunkorrei dagokienez, horiei zerga hau hurrengo erregelen arabera eskatuko zaie:

a) Foru arau honetako 24. artikuluko 2. idatz zatian eta 25. artikuluan establezimendu iraunkorrik gabe lortutako jarduera edo ustiapen ekonomikoen errentei buruz xedatutakoa; hori dela eta erregela hauek aplikatuko dira:

a’) Sortzapenari eta aitorpenen aurkezpenari buruzko arauak establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei buruzkoak izango dira.

b’) Zergadunak kontabilitate eta erregistro betebehar orokorretatik salbuetsita daude. Hala ere, zerga hau dela eta lortu dituzten sarreren eta egin dituzten gastuen frogagiriak gorde behar dituzte eta zerga administrazioak eskuratzeko moduan eduki, baita ere haiei doazkiela egin dituzten atxikipenak eta konturako sarrerak eta aitorpenak ere (eginez gero).

Era berean, zentsuan daudela dioen adierazpena aurkeztu behar dute eta zerga egoitza Arabako lurraldean dutela adierazi, eta zerga egoitzan zein zentsuko datuetan gertatzen diren aldaketa guztien berri eman behar dute.

b) Zergadunek, hala ere, aurreko artikuluetan establezimendu iraunkorrentzat xedatutako araubide orokorra hauta dezakete. Edozein modutan ere, establezimendu iraunkorrak lortutako errenten kontabilitatea bereizita ez badu artezten, aurreko a) letran adierazitako sistema nahitaez aplikatu behar da. Hautapena jardueraren hasieraren zentsu aitorpena aurkeztean egin behar da.

c) Aurreko a) letran ezarritako sistemari jarraitzen dioten zergadunei ezin izango zaizkie aplikatu inolaz ere zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmenetan establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei buruz ezarritako arauak.

**6.** (2) (6) Zerga oinarrian sartuko da ondoko ondare elementu hauen merkatu balio normalaren eta balio fiskalaren arteko diferentzia:

a) Jarduerari uzten dion Espainiako lurraldeko establezimendu iraunkor bati lotutako ondare elementuak.

b) Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor bati lotuta egon ondoren atzerrirabidaltzen diren ondare elementuak.

c) Jarduera atzerriraaldatzen duen Espainiako lurraldeko establezimendu iraunkor bati lotuta dauden ondare elementuak.

**7.** (6) Aurreko idatz zatiko b) eta c) letretan arautzen diren kasuetan, ondare elementuak Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu batera transferitzen direnean, baldin eta estatu horrek Espainiarekin edo Europar Batasunarekin akordioa egin badu zerga kredituen kobrantzan elkarri laguntzeko, eta akordio hori Kontseiluaren 2010eko martxoaren 16ko 2010/24/EB Zuzentarauan aurreikusitako elkarrekiko laguntzaren parekoa bada (Zerga, eskubide eta beste neurri

batzuei dagozkien kredituen kobrantzaren arloko elkarrekiko laguntzari buruzko Zuzentaraua), zergadunak hautatu ahal izango du aurreko idatz zatian xedatutakoa aplikatzearenemaitzako zerga zorra zatika ordaintzea, urtean bosten bat ordainduz, baldintza hauek betetzen badira:

a) Zergadunak ondasunen zerrenda bat aurkeztu behar du aurreko 6 apartatuko c) letraren kasuan, zerga honengatik aurkeztu behar duen azken autolikidazioarekin batera, edo 6 apartatuko b) letraren kasuan, aurreikusitako aktiboen transferentzia egiten den zergaldikoarekin batera. Aurreko 6 apartatuan xedatutakoa aplikatu behar zaien ondare elementuak agertuko dira banan-banan zerrenda horretan, eta elementu bakoitzaren kontabilitate balioa, eta bakoitzaren merkatu balio normalaren eta balio fiskalaren arteko aldea, bai eta elementu bakoitzari dagokion kuota osoaren zatiaren zenbatekoa ere.

b) Kreditu entitate batek edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal solidarioaren bidez edo kauzio aseguruaren ziurtagiriaren bidez kuota kobratuko dela bermatu behar da, hain zuzen ere zergadunak idatz zati honetan ezarri moduan zatikatu nahi duen ordainketaren zenbatekoa, baldin eta ez ordaintzeko arrisku frogagarria eta egiazkoa badago.

Zerga bilketako organoak ez ordaintzeko arriskua sumatzen badu lehenengo zatia ordaintzeko borondatezko epealdia amaitu ondoko sei hiletan, hori zergadunari jakinaraziko zaio, errekerimendu bidez, berme nahikoak aurkez ditzan hamar eguneko epealdian, errekerimenduaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Errekerimenduari erantzun ezean edo, erantzun arren, berme nahikorik aurkeztu ez dela edo bermearen beharrik eza behar bezala justifikatu ez dela irizten bazaio, ordaindu gabeko zor osoa eskatuko da otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 61.2 artikuluan aipatzen dituen epeetan. Epealdi horretan sarrerarik egin ezean, betearazte aldia hasiko da eta premiamendu prozedurari ekin beharko zaio otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 171.1 artikuluan ezartzen duen bezala.

Aurreko idatz zatiko b) letran arautzen den aktibo transferentziagertatzen den zergaldiko autolikidazioan soilik baliatu ahal izango da aukera hori, edo, aurreko idatz zatiko c) letran arautzen den kasuan, jarduera toki batetik beste batera eramateagatik amaitutako zergaldiko autolikidazioan, bestela. Lehen zatiaren ordainketa zergaldiko aitorpena norberaren borondatez egiteko epealdiaren barruan egin behar da, berandutze interesak gehituta.

Urteko gainerako lau zatiak, eta sortzen diren berandutze interesak, elkarren segidan mugaeguneratuko dira, bai eta eskatu ere, aurreko idatz zatian arautzen diren zergaldietako autolikidazioa norberaren borondatez egiteko epealdia amaitzen denetik urtebete igarotakoan.

Zergadunak eskatu ahal izango du murriztu dadila b) letran xedatzen dena aplikatzearen ondorioz eman beharreko bermea, egindako ordainketak kuota geroratu osoan hartzen duen proportzio berean.

Zatikatze horri, idatz zati honetan jasotako berezitasunak albora utzita, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, eta hura garatzen duen araudiak berandutze interesen sortzapenaz eta atzerapenerako bermeak eratzeazxedatzen dutena aplikatuko zaio.

**8.** (6) Aurreko idatz zatian ezarritakoa gorabehera, zatikatzeak bere indarra galduko du eta gainerako kuota zatikatua osorik eskatu ahal izango da, dagozkion berandutze interesekin batera, honako kasu hauetan:

a) Ukitutako ondare elementuak hirugarrenei eskualdatzen zaizkienean.

b) Ukitutako ondare elementuak, geroago, aurreko 7. idatz zatiko lehenengo paragrafoan aipatzen diren horietarikoa ez den hirugarren estatu batera aldatzen direnean.

c) Establezimendu iraunkorrak egindako jarduera, geroago, aurreko 7. idatz zatiko lehenengo paragrafoan aipatzen diren horietarikoa ez den hirugarren estatu batera aldatzen denean.

d) Zergaduna likidazioan dagoenean edo betearazpen kolektiboko prozedura batean sarturik dagoenean, esaterako konkurtsoan edo pareko edozein prozeduratan.

e) Zergadunak sarrerarik egiten ez badu zatikako ordainketarako aurreikusita dagoen epealdian.

Horrelako kasuetan, zergadunak, aurreko a) letratik e) letrara bitartekoetan aipatutako inguruabarrak gertatu diren zergaldiko zerga honen autolikidazioarekin batera, gainerako kuota zatikatuen zenbateko hau sartu beharko du, dagozkien berandutze interesak gehituta: aipatutako inguruabarrak zergaldi horretan gertatu zaizkien ondare elementuei dagokien zenbatekoa.

Idatz zati honetako a) eta b) letretan aipatzen diren elementuak eskualdatzen edo aldatzen diren kasuetan, ondare elementuon eskualdaketa edo aldaketa partziala izanez gero, zatikatzeak bere indarra galduko du soil-soilik elementu horien merkatuko balioaren eta balio fiskalaren arteko diferentzia positiboari dagokion zerga zorraren zati proportzionalerako, baldin eta zergadunak frogatzen badu eskualdaketa edo aldaketa horrek ondare elementuetako batzuei bakarrik eragiten diela.

Idatz zati honetako a), b) eta c) letretan ezartzen den moduan zatikatzeak indarra galtzen duenean zenbateko jakin batzuetarako, zenbateko horien sarrera hilabeteko epealdian egin beharko da, zatikatzeak indarra galtzen duenetik hasita. Hilabeteko epealdi horretan sarrerarik egin ezean, premiamendu prozedurari ekingo zaio, zatikatzeak zein zenbatekotarako galdu duen indarra, haiexetarako, eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 61.5 artikuluan aipatzen dituen epeetan ordaintzeko eskatuko da. Sartzen den zenbatekoa zatikatzearen azken mugaeguneratzeei aplikatuko zaie. Eskatutako zenbatekoak epealdi horietan ordaintzen ez badira, mugaeguneratutzat joko da gainerako zor zatikatua, halakorik bada, eta premiamendu prozedura hasiko da hura ordainarazteko.

Idatz zati honetako d) letran aipatzen den moduan zatikatzeak indarra galduz gero, ordaindu gabeko zorra mugaeguneratuko da, eta zatikatzeak indarra galtzen duenetik hasita hilabetean hura osorik ordain dadin eskatu ahalko da. Epealdi horretan sarrerarik egin ezean, betearazte aldia hasiko da eta premiamendu prozedurari ekin beharko zaio otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 171.1 artikuluan ezartzen duen bezala.

Idatz zati honetako e) letran aipatzen den kasuan zatikatzeak indarra galduz gero, premiamendu prozedurari ekingo zaio ordaindu gabeko zatiari dagokionez soilik, eta otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 61.5 artikuluan aipatzen dituen epeetan ordaintzeko eskatuko da. Honako hauek

ordaintzeko eskatuko da: aipatutako zatiaren zenbatekoa; borondatezko aldian ordaintzeko epealdia amaitu eta hurrengo hasi eta emandako epearen azken egunera arte sortutako berandutze interesak; eta bi kontzeptu horien baturari aplikatutako betearazte aldiko errekargua.

Aurreko paragrafoaren arabera eskatutako zenbatekoak ordaindu ezean, mugaeguneratutzat joko dira ordaindu gabe dauden gainerako zatiak, eta premiamendu prozedura hasi beharko da zor guztietarako. Berandutze interesak eskatuko dira: ordaindu gabeko zatia borondatezko aldian ordaintzeko epea amaitu eta biharamunetik hasi eta emandako epearen azken egunera arte sortutakoak.

**9.** (6) Baldin eta Espainiara transferitzen bada ondare elementu edo jardueraren bat eta, Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauak, barne merkatuaren funtzionamenduari zuzenean eragiten dioten saiheste fiskaleko praktiken aurkako arauak ezartzen dituenak, 5. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz, eragiketa horri Europar Batasuneko estatu batetik irtetean zerga aplikatu bazaio, irteerako estatuak zehaztutako balioa balio fiskaltzat joko da Espainian, merkatuko balioa islatzen ez duenean izan ezik.

**10.** (6) Artikulu honetako 6. idatz zatian xedatzen dena ez da aplikatuko eta, beraz, bermeen entregarekin edo finantzaketarekin zerikusia duten edo kapitaleko zuhurtasunezko betekizunak betetzea edo likideziaren kudeaketa xede duten ondare elementu transferituen merkatuko balioaren eta balio fiskalaren arteko diferentzia ez da zerga oinarrian sartuko, baldin eta aurreikusten bada haiek Espainiako lurraldera itzuli behar direla urtebete pasatu baino lehen atxikitzeko.

**11.** (8) Ez dira izango kengarriak:

a) Etxe zentralarekin edo haren establezimendu iraunkorretako batekin edo etxe zentral horrekiko edo edo haren establezimendu iraunkorretako batekiko lotura duen pertsona edo entitate batekin egindako eragiketen gastu edo galerak, baldin eta, etxe zentral horretako edo establezimendu iraunkorretako diru sarreren egozketan beste kalifikazio fiskala izatearen ondorioz, ez bada sortzen diru sarrerarik edo sortzen den diru sarrera salbuetsita edo zergapetzebikoitzadeuseztatzeari lotuta badago.

b) Etxe zentralaren edo pertsona edo entitate lotu baten establezimendu iraunkor batekin egindako eragiketen gastu edo galerak, ez badute sortzen diru sarrerarik edo sortzen dituzten diru sarrerak salbuetsita edo zergapetzebikoitzadeuseztatzeari lotuta badaude, establezimendu iraunkor hori kokalekua duen estatu edo lurraldean halakotzat aitortua ez izatearen ondorioz.

c) Etxe zentralarekin edo haren edo pertsona edo entitate lotu baten establezimendu iraunkorretako batekin egindako barne eragiketengatik zenbatetsitako gastuak, horietan, onuradunaren estatu edo lurraldeko legeriarengatik, ez bada sortzen diru sarrerarik edo sortzen den diru sarrera salbuetsita edo zergapetzebikoitzadeuseztatzeari lotuta badago, etxe zentralak edo establezimendu iraunkorrak izan duen eta foru arau honen eta beste estatu edo lurraldeko legeriaren arabera zergapeturik dagoen diru sarrera batekin konpentsatu gabeko zatian.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera kendu ez diren gastuak, hurrengo hogeita hamar urtean bukatzen diren zergaldietan konpentsatu ahal izango dira establezimendu iraunkorrak lortzen dituen eta foru arau honen eta beste estatu edo lurraldeko legeriaren arabera zergapeturik dauden errenta garbi positiboekin.

d) Establezimendu iraunkorraren eragiketen gastu edo galerak, orobat etxe zentralean edo pertsona edo entitate lotu batean kengarriak badira, foru arau honen eta beste estatu edo lurraldeko legeriaren arabera zergapeturik dagoen diru sarrera batekin konpentsatzen ez den zatian.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera kendu ez diren zenbatekoak, hurrengo hogeita hamar urtean bukatzen diren zergaldietan konpentsatu ahal izango dira establezimendu iraunkorrak lortzen dituen eta foru arau honen eta beste estatu edo lurraldeko legeriaren arabera zergapeturik dauden errenta garbi positiboekin.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako:

a) Diru sarrera bat foru arau honen eta beste estatu edo lurralde bateko legeriaren arabera zergapeturik dagoela iritziko da diru sarrera hori ez badago ez salbuetsita, ez zergapetzebikoitzadeuseztatzeari lotuta.

b) Foru arau honen 15.2 artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako, pertsona edo entitate lotutzat hartuko dira:

a’) Entitate bateko boto eskubideei edo haren kapitalaren jabetzari buruz beste batekin bateraturik dihardUen pertsona edo entitatea. Pertsona edo entitate hori partaidetza baten jabe bezala tratatuko da, beste pertsonarenjabetza diren entitate horretako boto eskubide guztiei edo kapitalaren jabetzari dagokienez.

b’) Zergadunak kudeaketan eragin esanguratsua duen entitate bat, edo zergadunaren kudeaketan eragin esanguratsua duen entitate bat.

**19. artikulua. Zerga zorra.**

**1.** Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatutako zerga oinarriari Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 56. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako karga tasetatik bidezkoa dena aplikatuko zaio. Salbuespena: establezimendu iraunkorraren jarduera hidrokarburo naturalen sorguneak miatzea, ikertzea eta ustiatzea eta lurpean biltzea bada, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 56. artikuluko 6. idatz zatian ezarritako karga tasa aplikatuko da.

**2.** Gainera, erakunde ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrek lortutako errentak atzerrira transferitzen direnean, ehuneko 20ko karga osagarria ezarriko zaie establezimendu iraunkorraren errenten kargura transferitutako zenbatekoei, foru arau honetako 18. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran aipatutako ordainketak barne direla, baldin eta establezimendu iraunkorraren likidazio oinarria finkatzeko gastu kengarri izan ez badira.

Karga osagarri horren autolikidazioa eta ordainketa establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentetarako ezarritako moduan egingo dira, eta epealdi euretan.

**3.** Ondoko errentei ezin zaie aplikatu karga osagarria:

a) Zerga egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean daukaten erakundeek Arabako lurraldean establezimendu egonkorren bidez lortzen dituzten errentei.

b) Zerga egoitza Espainiarekin zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena sinatuta daukan estatu batean daukaten erakundeek Arabako lurraldean establezimendu

egonkorren bidez lortzen dituzten errentei, baldin eta estatu horretan kontrakoa ez bada ezartzen eta elkarrekiko tratamendua badago.

**4.** Zergaren kuota osoan eta kuota likidoan ondokoak aplikatu daitezke:

a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko V. tituluko II. eta III. kapituluetan aipatzen diren kenkarien zenbatekoa, foru arau horretako 59. artikuluan gutxieneko tributazioaz ezarritako erregelak kontuan hartuta.

b) Atxikipenen, konturako sarreren eta zatikako ordainketen zenbatekoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

**5.** Kenkariak establezimendu iraunkorrean biltzen diren inguruabarren arabera aplikatuko dira; zergaduna ez beste batzuenak ezin dira eskualdatu.

**6.** Egindako atxikipenak, konturako sarrerak eta zatikako ordainketak Zergaren kuota osoari artikulu honetako 4. idatz zatiko a) letran aipatzen diren kenkariak aplikatu ondoko kopurua baino gehiago izanez gero, Zerga Administrazioak soberakina ofizioz itzuliko du, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 129. artikuluan ezarri den bezala (epealdiak eta baldintzak).

**20. artikulua. Zergaldia eta sortzapena.**

**1.** Zergaldia establezimendu iraunkorrak aitortutako ekitaldi ekonomikoa bera izango da; ezin da izan hamabi hilabete baino luzeagoa.

Beste bat aitortu ezean, zergaldia urte naturala izango da.

Zergaldiaren jakinarazpena Zergaren lehen autolikidazioa aurkeztu behar denean egin behar da; berariaz aldatzen ez den bitartean, ondoko ekitaldietarako ere balioko du.

**2.** (6) Zergaldia amaitutzat joko da establezimendu iraunkorrak jarduera egiteari uzten dioenean edo, bestela, establezimendu iraunkorrean behinola egindako inbertsioaren desafektazioa gertatzen denean, bai eta jarduera atzerriraaldatzen denean, establezimendu iraunkorra beste pertsona fisiko edo entitate bati eskualdatzen zaionean, etxe zentralak egoitzaaldatzen duenean eta titularra hiltzen denean ere.

**3.** Zergaren sortzapena zergaldiko azken egunean gertatuko da.

**21. artikulua. Autolikidazioa.**

**1.** Establezimendu iraunkorrek Zergaren autolikidazioa aurkeztu behar dute eta bidezko zerga zorra zehaztu eta ordaindu behar dute, eta horiek denak egiteko Arabako Foru Aldundiak zehazten duen prozedurari (modua, lekua eta agiriak) lotu behar zaizkio.

Autolikidazioa zergaldia amaitu eta hurrengo sei hilen ondoko hogeita bost egun naturaleko epealdian aurkeztu behar da.

**2.** Foru arau honetako 20. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren kasuetako bat gertatuz gero, autolikidazioa aurkezteko epealdia establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentetarako orokorrean ezarritakoa bera izango da dena delako inguruabarra gertatzen denetik kontatzen hasita; autolikidazioa aurkezten ez den bitartean ezin da baimendu Erakundeen Indizean baja ematea.

**22. artikulua. Betebehar formalak, kontabilitatekoak eta erregistrokoak.**

**1.** Establezimendu iraunkorrek egiten dituzten eragiketei eta beraiei lotutako ondare elementuei buruzko kontabilitate berezia arteztu behar dute.

**2.** Halaber, Arabako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren arautegian erakunde egoiliarrei ezarritako kontabilitateko eta erregistroko betebeharrak eta betebehar formalak ere bete behar dituzte.

**23. artikulua. Konturako ordainketak.**

**1.** Establezimendu iraunkorrek zerga honen likidazioaren konturako ordainketak egin behar dituzte; horretarako Sozietateen gaineko Zergaren Arabako arautegian erakunde egoiliarrei ezarritakoa aplikatuko zaie.

**2.** Halaber, atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar dituzte, eta horretarako ere Sozietateen gaineko Zergaren Arabako arautegian erakunde egoiliarrei ezarritakoa aplikatuko zaie.

## IV. KAPITULUA

## ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK GABE LORTUTAKO ERRENTAK

**24. artikulua. Zerga oinarria.**

**1.** Oro har, zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituzten etekinei dagokien zerga oinarria etekinen zenbateko osoa izango da. Zenbateko osoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legean (Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren legeak partzialki aldatu ditu) ezarritako arauak aplikatuta zehaztuko da. Ezin aplikatu izango da kenkaririk.

**2.** Ingeniaritza kontratuen eta, oro har, establezimendu iraunkorrik gabe egindako jarduera edo ustiapen ekonomikoen ondoriozko zerbitzu prestazioen, laguntza teknikoaren eta instalazio edo muntaketa obren kasuan, zerga oinarria alde batetik sarrera osoen eta bestetik langile gastuen eta obra edo lanetarako materialez eta hornigaiez hornitzeko gastuen arteko diferentzia izango da, arauz ezartzen den bezala.

**3.** Berraseguru eragiketen ondoriozko etekinen zerga oinarria egoiliar ez den berraseguratzaileari berraseguruan lagatako primen zenbatekoak sartzen dira.

**4.** (2) Ondare irabazien zerga oinarria kalkulatzeko ondoko arauak aplikatuko zaizkio ondarean gertatzen den aldaketa bakoitzari: azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, III. tituluko II. kapituluko 4. atalean (33. artikuluko 2. idatz zatia alde batera utzita) eta X. tituluko 6. atalean (94.1.a artikuluko bigarren paragrafoa alde batera utzita) ezartzen dituenak.

Erakundea egoiliarra ez bada eta ondare irabaziaren sorburua kostu gabeko eskuraketa izan bada, irabaziaren zenbatekoa eskuratutako elementuak merkatuan daukan balioa izango da.

Foru arau honetako 13. artikuluko 2. idatz zatiko k) letrako c') letran aipatzen diren ondare irabaziei dagokienez, beraien sorburua egoitza Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko hamabosgarren xedapen gehigarriko 3. idatz zatian xedatutakoaren

arabera zerga informazioa trukatzen ez den herrialde edo lurralde batean duten erakundeetako eskubideak edo partaidetzak eskualdatzea izan bada, eskualdaketaren balioa Arabako lurraldean dauden ondasun higiezinek edo haiek gozatzeko eskubideek eskualdaketa unean merkatuan duten balioaren proportzioa da.

Baldin eta zergadunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren karga jasan badu ondare irabazien gainean egoitza aldatzeagatik, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Legeak, sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren legeak modu partzialean aldatzen dituenak, 95 bis artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz, eskualdaketak sortutako ondare irabazia kalkulatzeko akzioen edo partaidetzen merkatuko balioa hartuko da eskuraketa baliotzat, hain zuzen ere artikulu horretan arautzen den ondare irabazia zehazteko kontuan hartu beharrekoa.

**5.** Egoiliar ez diren pertsona fisikoei Arabako lurraldean dauden ondasun higiezinengatik egotz beharreko errenta kalkulatzeko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko 85. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da (lege horrek Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeak partzialki aldatu ditu).

**6.** (2) Zergadunaren egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean badago, erregela berezi hauek aplikatu behar dira:

1. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako etekinen zerga oinarria kalkulatzeko ondoko hauek kendu daitezke:

a) Pertsona fisikoen tributazioan, azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak eta sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren legeak modu partzialean aldatzen dituenak, ezartzen dituen gastuak, baldin eta zergadunak frogatzen badu gastuok zuzenean lotuta daudela Espainian lortutako etekinekin eta lotura ekonomiko zuzena eta ezeztaezina dutela Espainian egindako jarduerarekin.

b) Erakundeen tributazioan, azaroaren 27ko 27/2014 Legeak, sozietateen gaineko zergarenak, ezartzen duenarekin bat etorriz kengarriak diren gastuak, baldin eta zergadunak frogatzen badu gastuok zuzenean lotuta daudela Espainian lortutako etekinekin eta lotura ekonomiko zuzena eta ezeztaezina dutela Espainian egindako jarduerarekin.

2. Ondare irabazien zerga oinarria kalkulatzeko ondoko arauak aplikatuko zaizkio gertatutako ondare aldaketa bakoitzari: azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak eta sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren legeak modu partzialean aldatzen dituenak, III. tituluko II. kapituluko 4. atalean eta X. tituluko 6. atalean (94.1.a artikuluko bigarren paragrafoa alde batera utzita) ezartzen dituenak.

Idatz zati honetan xedatzen dena hauei ere aplikatuko zaie: egoitza Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak hamabosgarren xedapen gehigarriko 3. idatz zatian ezartzen duenaren arabera zerga informazioaren truke efektiboa dagoen Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean duten zergadunei.

**25. artikulua. Zerga kuota.**

**1.** Aurreko artikuluaren arabera zehaztutako zerga oinarriari hurrengo karga tasak ezarri ostean lortuko da zerga kuota:

a) (2) Oro har, ehuneko 24. Hala ere, karga ehuneko 19koa izango da zergadunaren egoitza Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak hamabosgarren xedapen gehigarriko 3. idatz zatian ezartzen duenaren arabera zerga informazioaren truke efektiboa dagoen Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean badago.

b) Foru arau honetako 1. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko ez-egoiliarrek jasotako pentsioak eta gainerako antzeko prestazioak, hura jasotzeko eskubidea sortu duen pertsona edozein izanik ere, eskala honen arabera kargatuko dira.

| Pentsioaren urteko zenbatekoaren muga<br>Euroak | Kuota<br>Euroak | Pentsioaren gainerako zatiaren muga<br>Euroak | Tasa<br>Ehunekoa |
|---|---|---|---|
| 0 | 0 | 12.000 | 8 |
| 12.000 | 960 | 6.700 | 30 |
| 18.700 | 2.970 | Hortik gora | 40 |

c) Foru arau honetako 1. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko ez-egoiliarrek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun ez direnek, atzerriko espainiar misio diplomatiko eta kontsul ordezkaritzetan lan eginez lortzen dituzten etekinei ehuneko 8ko karga ezarriko zaie, baldin eta Espainia partaide den nazioarteko itunbenen ondoriozko berariazko arauak aplikatu behar ez badira.

d) Berraseguru eragiketen ondoriozko etekinek ehuneko 1,5eko karga jasango dute.

e) Egoitza atzerrian duten itsas edo aire nabigazioko erakundeen itsasontziek edo aireontziek Arabako lurraldea ukitzen badute, ehuneko 4.

f) Ondoko hauei ehuneko 19ko karga ezarriko zaie: (1)

1. Erakundeen funts propioetako partaidetzek sortzen dituzten dibidenduak eta bestelako etekinak:

2. Norberaren kapitalak hirugarrenei lagata lortzen diren korrituak eta bestelako etekinak:

3. Ondare elementuak eskualdatuta agerian jartzen diren ondare irabaziak.

g) Egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsona fisikoek sasoiko langile atzerritarrentzat eratutako iraupen jakineko kontratuen ondorioz eta lan arautegiak ezarritakoaren arabera jasotzen dituzten lanaren etekinei ehuneko 2ko zerga tasa ezarriko zaie.

**2.** Establezimendu iraunkorrik gabe diharduten zergadunek Arabako lurraldean dagoen ondasun higiezinen bat eskualdatuz gero, eskuratzaileak hitzartuta kontraprestazioen ehuneko 3 atxiki eta sartu behar du, edo bidezko konturako sarrera egin Zergaren konturako ordainketagatik.

Idatz zati honetan aipatu den konturako ordainketa ez da bidezkoa izango Espainiako lurraldean egoitza duten sozietateen kapital eraketan edo gehikuntzan ondasun higiezinak ematen diren kasuetan.

Arau haustea dela eta zehapena ezartzea gorabehera, atxikipena edo konturako sarrera egiten ez bada, eskualdatutako ondasunengatik kopuru hauetatik txikiena ordaindu behar da: atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa edo Zergaren karga.

**3.** Foru arau honetako 13. artikuluko 2. idatz zatiko k) letrako c') letran aipatzen diren ondare irabaziak lortzen badira egoitza Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko hamabosgarren xedapen gehigarriko 3. idatz zatian xedatutakoaren arabera zerga informazioa trukatzen ez den herrialde edo lurralde batean duen erakunde bateko eskubideak edo partaidetza eskualdatuta, Arabako lurraldean dauden ondasun higiezinak Zergaren kargapean daude.

Hala ere, ondasun higiezinen titularra zerga egoitza Espainian daukan erakundea bada, Zergaren kargapean daude zergadunari zuzenean edo zeharka dagozkion erakunde horretako eskubideak eta partaidetzak.

**26. artikulua. Kenkariak.**

Kuotatik ondokoak bakarrik kenduko dira:

a) Emariengatik aplika daitezkeen kenkariak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko 68. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoaren arabera (lege horrek Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeak partzialki aldatu ditu).

b) Zergadunaren errentei aplikatutako atxikipenak eta konturako sarrerak.

**27. artikulua. Sortzapena.**

**1.** Zergaren sortzapena une hauetan gertatuko da:

a) Etekinen kasuan, galdagarriak direnean (edo kobrantza egunean, aurrekoa baino lehen gertatzen bada).

b) Ondare irabazien kasuan, ondare aldaketa gertatzen denean.

c) Hiri ondasun higiezinei dagozkien errentak egotzien kasuan, urte bakoitzeko abenduaren 31n.

d) Gainerako kasuetan, errentak galdagarriak direnean.

**2.** Foru arau honetako 12. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren ustezko errenten gaineko karga galdagarriak direnean sortuko da, edo bestela, galdagarriak ez badira, urte bakoitzeko abenduaren 31n.

**3.** Zergaduna hilez gero, egozteko geratzen diren errenta guztiak heriotzaren egunean dira galdagarriak.

**28. artikulua. Autolikidazioa.**

**1.** Establezimendu iraunkorrik gabe errentak lortzen dituzten zergadunek autolikidazioa aurkeztu behar dute eta bidezko zerga zorra zehaztu eta ordaindu behar dute; horiek denak egiteko ezartzen den prozedurari (modua, lekua eta agiriak) lotu behar zaizkio.

**2.** Foru arau honetako 9. artikuluan xedatutako erantzule solidarioek ere autolikidazioa egin eta zorra sartu ahal izango dute.

**3.** Zerga honen zergadunek ez dute egin behar atxikipena edo konturako sarrera (foru arau honetako 31. artikulua) egin zaien errenten autolikidazioa, kasu honetan izan ezik: Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak araututako inbertsio funtsetako partaidetzak itzulita lortzen diren ondare irabaziak, baldin eta egindako atxikipena foru arau honetako 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera kalkulatutako zerga kuota baino gutxiago bada.

**29. artikulua. Betebehar formalak.**

**1.** Foru arau honetako 24. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren errentak lortzen dituzten zergadunek arauz ezartzen diren sarreren eta gastuen erregistroak arteztu behar dituzte.

**2.** Atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar izanez gero, zentsuan daudela dioen adierazpena aurkeztu behar dute eta arauz ezartzen diren sarreren eta gastuen erregistroak arteztu behar dituzte.

**30. artikulua. Konturako ordainketak.**

**1.** Establezimendu iraunkorrek egiten dituzten zatikako ordainketak eta jasotzen dituzten errentengatik ezartzen zaizkien atxikipenak eta konturako sarrerak Ekonomia Ituneko I. kapituluko 2. eta 3. ataletan ezarritako arauekin bat etorriz eskatuko dira.

**2.** Establezimendu iraunkorrik gabe diharduten zergadunek lortutako errentei dagozkien atxikipenak eta konturako sarrerak Arabako Foru Aldundiak soilik eskatuko ditu kasu honetan: errentak Arabako lurraldean lortutzat jotzen direnean foru arau honetako 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, foru arau honetako 13. artikuluko bigarren idatz zatiko f) eta g) letretan, h) letrako a') letran eta k) letrako a') eta c') letretan eta 3. idatz zatian aipatzen diren kasuetan Arabako Foru Aldundiak eskatuko ditu Araban egindako eragiketen bolumenaren proportzioan Ekonomia Ituneko I. kapituluko 3. atalean ezarritako arauekin bat etorriz.

**31. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrera egin beharra.**

**1.** Ondoko zerrendakoek ordaintzen dituzten zerga honen kargapeko errentak direla eta atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituzte:

a) Egoitza Espainiako lurraldean daukaten erakundeak, errenta eratxikipenaren araubidean daudenak barne.

b) Egoitza Espainiako lurraldean daukaten pertsona fisikoetatik jarduera ekonomikoren bat egiten dutenak, baldin eta jardueran errentarik ordaintzen badute.

c) (2) Establezimendu iraunkorrarekin diharduten zergadunak edo establezimendu iraunkorrarekin dihardutenak, baina, kasu horretan, ordaintzen dituzten lanaren

etekinei dagokienez soilik, bai eta atxikipena aplikatu behar zaien eta foru arau honetako 24. artikuluan aipatutako errentak lortzeko gastu kengarri diren beste etekin batzuei dagokienez ere.

d) Foru arau honetako 5. artikuluko c) letran aipatzen diren zergadunak.

e) Aseguru pribatuen antolamenduari eta ikuskapenari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legeko 86.1 artikuluan eta hamazazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera izendatutako ordezkaria, zerbitzugintza askearen araubidean ari den aseguru erakunde baten izenean diharduena, Espainian egiten diren eragiketei dagokienez.

Atzerriko estatuek Espainian dauzkaten misio diplomatikoek eta kontsul bulegoek ez dute atxikipenik ez konturako sarrerarik aplikatu beharrik.

**2.** Atxikipenak egin behar dituzten zergadunek kopuru hau atxiki edo kontura sartu behar dute: establezimendu iraunkorrik gabe ari diren zerga honen zergadunen zerga zorra zehazteko foru arau honetan ezarritako xedapenak edo ezarpen bikoitza saihesteko itunean ezarritakoak aplikatzearen emaitza, foru arau honetako 24. artikuluko 2. eta 6. idatz zatietan, 26. artikuluan eta 33. artikuluko 7. idatz zatian xedatutakoa kontuan hartu gabe. (2)

Aurrekoa gorabehera, konturako sarrera kalkulatzeko arauz xedatzen dena aplikatuko da.

Idatz zati honetako lehen paragrafoan ezarritakoa gorabehera, Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautzen inbertsio funtsetako partaidetzen itzulketen atxikipena kalkulatzeko oinarria arauz ezarriko da.

**3.** Atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituzten subjektuek Arabako Foru Aldundiari sartu behar diote dirua; lehenengo betebeharra ez betetzeak ez ditu askatuko bigarrena bete beharretik.

**4.** Artikulu honetako 5. idatz zatian xedatutako aitorpena egin beharra gorabehera, errentak salbuetsita badaude foru arau honetako 14. artikuluan edo zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmenean xedatutakoa dela bide, ez da egin behar atxikipenik ez konturako sarrerarik.

Ondokoak direla eta ez da egin behar atxikipenik:

a) Establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten zerga honen zergadunei ordaindutako errentak, Zerga ordaindu dela edo salbuespena bidezkoa dela frogatuz gero.

b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko hamalaugarren xedapen gehigarriko 4. idatz zatiko c) letran aipatzen diren errentak.

c) Arauz ezartzen diren errentak.

**5.** Atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu behar dituen subjektuak atxikitako edo kontura sartutako kopuruen autolikidazioa aurkeztu behar dio Arabako Foru Aldundiari eta behar den kopurua sartu behar dio hark arauz ezartzen duen prozedurari lotuta (lekua, modua eta epealdiak). Ez badu aplikatu atxikipenik ez konturako sarrerarik, autolikidazio negatiboa aurkeztu behar dio. Halaber, urteko atxikipenen eta konturako sarreren laburpena aurkeztu behar du; arau bidez zehaztuko da nolakoa izan behar den.

Atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituen subjektuak eragiketei dagozkien agiriak gorde behar ditu eta egin dituen atxikipenen eta konturako sarreren ziurtagiriak egin behar ditu (arauz zehaztuko da nola).

**6.** Artikulu honetan xedatutakoak ez du eragozten foru arau honetako 25. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoa.

**32. artikulua. Lanaren errenten gainean atxikipenak aplikatu beharra egoitza aldatzen denean.**

Soldatapeko langileen kasuan, zerga honen zergadun ez den langile bat atzerrira joango bada eta ondorioz zergadun bihurtuko bada, Zerga Administrazioari jakinarazi ahal izango dio eta Espainiako lurraldetik irteten den egunaren berri eman, beraren lanaren etekinen ordaintzaileak zergaduntzat har dezan.

Araudian ezartzen den prozedurari jarraituz Zerga Administrazioak frogagiria emango die eskatzen dioten besteren konturako langileei, lanaren etekinak ordaintzen dizkieten Espainiako egoiliarrei edo bertan establezimendu iraunkorra dutenei eman diezaieten. Agiri horretan adieraziko da zein egunetatik aurrera egin behar diren zerga honen atxikipenak eta konturako sarrerak.

Aurrekoak ez dio kenduko langileari zerga egoitza berria Zerga Administrazioari jakinarazi beharra.

## V. KAPITULUA

## ERAKUNDE EZ-EGOILIARREN ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO KARGA BEREZIA

**33. artikulua. Erakunde Ez-egoiliarren Ondasun Higiezinen gaineko Karga Berezia**

**1.** Zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde bateko egoiliar den erakunde batek Araban edozein tituluren ondorioz ondasun higiezinen bat badauka, edo ondasun hori gozatzeko eskubide errealak, Zergaren kargapean dago eta urtero, abenduaren 31n, haren gaineko karga berezia sortuko da eta sortzapenaren hurrengo urteko urtarrilean aitortu eta ordaindu beharko du (non eta nola berariaz ezarriko da).

**2.** Karga bereziaren zerga oinarria ondasun higiezinaren katastro balioa izango da. Katastro baliorik ezean, Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako aplikatu beharreko xedapenei jarraituz kalkulatutako balioa hartuko da aintzat.

**3.** Karga bereziaren tasa ehuneko 3 izango da.

**4.** Zergadunak aurreko 1. idatz zatian ezarritako epealdian karga bereziaren autolikidazioa eta sarrera egin ezean, ondasun higiezinen gaineko premiamenduaren bidez eskatuko da; hori hasteko nahikoa izango da Zerga Administrazioak ziurtagiria ematea, hain zuzen ere karga ordaintzeko borondatezko epealdian zergadunak ez duela sartu zerga zorra adierazten duena eta zorraren zenbatekoa finkatzen duena.

Karga berezia ordaindu behar duen erakunde batek Araban dagoen ondasun higiezin bat eskualdatzen badu, ondasuna karga ordaintzeko erabili ahal izango da.

**5.** Ondokoei ez zaie eskatuko Ondasun Higiezinen gaineko Karga Berezia:

a) Atzerriko estatuei eta erakunde publikoei, eta nazioarteko organismoei.

b) Espainian, etengabe edo maiz, higiezinaren edukitze edo errentamendu soilean ez beste ustiapen ekonomiko batzuetan aritzen diren erakundeei, arauz ezartzen denarekin bat etorriz.

c) Ofizialki onartutako bigarren mailako balore merkatuetan kotizatzen duten sozietateei.

**6.** Aurreko 1. idatz zatian aipatzen diren erakundeetako batek beste pertsona edo erakunde batekin edo batzuekin ondasun edo eskubide baten titulartasunean partaidetza badauka, Erakunde Ez-egoiliarren Ondasun Higiezinen gaineko Karga Berezia kopuru honi aplikatuko zaio: ondasun edo eskubidearen balioan titulartasunaren partaidetzaren proportzioan dagokion zatiari.

**7.** Erakunde ez-egoiliarren ondasun higiezinen gaineko karga bereziaren kuota gastu kengarritzat hartuko da foru arau honetako aurreko artikuluen arabera zerga oinarria zehazteko.

## VI. KAPITULUA

## ERRENTA ERATXIKIPENAREN ARAUBIDEAN DAUDEN ERAKUNDEAK

### 34. artikulua. Errenta eratxikipenaren araubideko erakundeak.

**1.** Foru arau honetako 7. bis artikuluan aipatzen diren erakundeetatik bazkideen artean zerga honen zergadunak dauzkaten erakundeek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko IV. tituluko VI. kapituluko 2. atalean xedatutakoa aplikatuko dute, kapitulu honetan ezarritako espezialitateak kontuan hartuta, erakundea non eratuta dagoen, Espainian edo atzerrian.

**2.** Aurreko idatz zatian aipatzen diren erakundeetako kideak zerga honen zergadunak badira, kapitulu honetan ezarritako espezialitateak aplikatu behar dituzte.

## 1. ATALA

## ESPAINIAN SORTUTAKO ERRENTA ERATXIKIPENAREN ARAUBIDEKO ERAKUNDEAK

### 35. artikulua. Jarduera ekonomikoa egiten duten erakundeak.

Arabako lurraldean jarduera ekonomikoa egiten duten errenta eratxikipenaren araubideko erakundeen kasuan, egoiliar ez diren kideak zerga honen zergadun dira establezimendu iraunkorrarekin.

### 36. artikulua. Jarduera ekonomikorik egiten ez duten erakundeak.

**1.** Arabako lurraldean jarduera ekonomikorik egiten ez duten errenta eratxikipenaren araubideko erakundeen kasuan, egoiliar ez diren kideak zerga honen zergadun dira establezimendu iraunkorrik gabe; bakoitzari eratxiki beharreko errenta zatia foru arau honetako IV. kapituluko arauekin bat etorriz kalkulatuko da.

**2.** Kasu honetan, eta 3. idatz zatian ezarritakoa eragotzi gabe, errenta eratxikipenaren araubidean dagoen erakundeak ondoko kopurua sartu behar du kontura: egoiliar ez

den kideari dagokion atxikipenaren zatiaren eta foru arau honetako 31. artikuluan ezarritakoa eratxikitako errentari zuzenean aplikatuz gero sortuko zen atxikipenaren arteko diferentzia.

**3.** Araban dauden ondasun higiezinen eskualdaketen kasuan, errenta eratxikipenaren araubidean dagoen erakundeko kideetako bat ez bada egoiliarra, eskuratzaileak kide horri dagokion hitzartutako kontraprestazioaren zatiaren gainean egin behar du atxikipena foru arau honetako 25. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz.

**4.** Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehaztuko du nola, non eta zer epealditan bete behar den 2. idatz zatian aipatutako betebeharra.

## 2. ATALA

## ATZERRIAN SORTUTAKO ERRENTA ERATXIKIPENAREN ARAUBIDEKO ERAKUNDEAK

### 37. artikulua. Atzerrian sortutako errenta eratxikipenaren araubideko erakundeak.

Atzerrian eratutako erakunde batzuk errenta eratxikipenaren araubideko erakundetzat hartuko dira: Espainiako legeekin bat etorrita eratutako errenta eratxikipenaren araubideko erakundeen izaera juridiko bera edo antzekoa dutenak.

### 38. artikulua. Espainiako lurraldean ari diren erakundeak.

**1.** Atzerrian sortutako errenta eratxikipenaren araubideko erakunde batek jarduera ekonomikoa egiten badu Arabako lurraldean eta jarduera horren zati bat edo dena, etengabe edo normalean, denetariko instalazio edo lantokien bidez egiten badu, edo halakoetan jarduten badu bere izenean eta kontura kontratuak egiteko baimena daukan agente baten bidez, zerga honen zergaduna da eta urteko autolikidazioa aurkeztu behar du Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen duen bezala eta ondoko erregela hauekin bat etorriz:

1. Zerga oinarria hauxe izango da: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 55. artikuluan ezarritakoaren arabera egoiliar ez diren erakundeko kideei eratxiki beharreko errentaren zatia, lortu den tokia gorabehera.

2. Kuota osoa kalkulatzeko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 56. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran ezarritako karga tasa aplikatu behar zaio zerga oinarriari.

3. Kuota hori ondokoak aplikatuz murriztuko da: foru arau horretako 19. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoaren arabera establezimendu iraunkorraren bidez aritzen diren zergadunek aplika ditzaketen kenkariak; konturako ordainketak (egoiliar ez diren kideei eratxiki beharreko errenta zatiari dagozkionak).

**2.** Erakunde hauek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 56. artikuluan aipatzen den aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute erakundeko kide egoiliarrei eratxiki beharreko errenta zatiari buruz.

**3.** Aurreko 1. idatz zatian aipatutako zergadunek zatikako ordainketak egin behar dituzte zerga honen kontura; horretarako autolikidazioa egin behar dute eta ordaindu beharreko zenbatekoak arauz zehazten den bezala sartu behar dituzte.

**4.** Aurreko 1. idatz zatian aipatutako erakunde bateko kide ez-egoiliar batek zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmen bati heltzen badio, erakundeak ordaindutako kuotetatik berari dagokion zatia berak ordaindutzat hartuko da.

**39. artikulua. Espainiako lurraldean ari ez diren erakundeak.**

**1.** Atzerrian eratutako errenta eratxikipenaren araubideko erakunde batek Arabako lurraldean errentak lortzen baditu bertan jarduera ekonomikorik egin gabe, aurreko artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoaren arabera, egoiliar ez diren kideak zerga honen zergadun dira establezimendu iraunkorrik gabe; bakoitzari eratxiki beharreko errenta zatia foru arau honetako IV. kapituluko arauekin bat etorriz kalkulatuko da.

**2.** Espainiako lurraldean lortutako errentei aplikatutako atxikipenei eta konturako sarrerei ez zaie aplikatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 55. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoa. Atxikipenak eta konturako sarrerak honela aplikatu behar dira:

a) Ordaintzaileari erakundeko kideen egoiliartasuna eta bakoitzari egozten zaien errenta proportzioa frogatzen bazaizkio, kide bakoitzari bidezko zergaren zioz inguruabar horien arabera dagokion atxikipena aplikatu behar zaio.

b) Ordaintzaileak uste badu ez direla behar bezala frogatu aurreko letran azaldutako inguruabarrak, atxikipena edo konturako sarrera zerga honi buruzko arauei lotuta egin behar dira, kideak nongo egoiliar diren eta foru arau honetako 14. artikuluko salbuespenak aintzat hartu gabe. Atxikipen tasa foru arau honetako 25. artikuluko 1. idatz zatiaren araberakoa izango da.

Errenta eratxikipenaren araubideko erakundea zerga paradisutzat jotako herrialde edo lurralde batean eratu bada, atxikipena aurreko b) letran ezarritako arauarekin bat etorriz aplikatu behar da.

Atxikipena edo konturako sarrera bazkide, jaraunsle, erkide edo partaidearen ezarpen pertsonaletik kenduko da, errentak eratxikitzen zaizkion proportzio berean.

**3.** Araban dauden ondasun higiezinen eskualdaketen kasuan, errenta eratxikipenaren araubidean dagoen erakundeko kideetako bat ez bada egoiliarra, eskuratzaileak kide horri dagokion hitzartutako kontraprestazioaren zatiaren gainean egin behar du atxikipena foru arau honetako 25. artikuluko 2. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz.

**4.** Artikulu honetan aipatzen diren erakundeek ez dituzte bete behar Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 56. artikuluan ezarritako informazio betebeharrak.

## VII. KAPITULUA

## BESTE XEDAPEN BATZUK

### 40. artikulua. Egoitza Europar Batasuneko estatuetan duten zergadunak: tributazio aukera.

**1.** (5) Pertsona fisiko diren zerga honen zergadunek Europar Batasuneko estatu batean badaukate egoitza (ohiko bizilekua edo egoitza Europar Batasuneko estatu batean dagoela frogatu behar dute), nahi izanez gero pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga Arabako Lurralde Historikoan zergadun gisa ordaintzea hauta dezakete; horretarako ezinbestekoa da ondoren aipatuko diren errentek zergaldi horretan ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren karga jasatea eta, gainera, honako inguruabar hauek gertatzea:

a) Ekitaldian Espainian lanaren eta jarduera ekonomikoen bidez lortutako etekinen batura guztira lortutako errenten ehuneko 75 izatea, gutxienez.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan lortutako errenta Espainian guztira lortutako errentaren zatirik handiena izatea.

c) Arabako Lurralde Historikoan lortutako errenta beste bi lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoa baino gehiago izatea.

Aurreko a) eta b) letretan xedatzen denari dagokionez, errentak zenbateko garbiak kontuan hartuz kalifikatu eta konputatuko dira, azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, ezartzen duenarekin bat etorriz (lege horrek partzialkialdatzen ditu sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren legeak).

Aurreko c) letran xedatzen denari dagokionez, errentak zenbateko garbiak kontuan hartuz kalifikatu eta konputatuko dira, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, ezartzen duenarekin bat etorriz.

**2.** Hauxe izango da kargapeko errenta: artikulu honetan araututako aukerako araubidea hautatzen duen zergadunak Espainian lortutako errenta guztien batura. Errentak zenbateko garbiak kontuan hartuz konputatuko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

**3.** Karga tasa hau aplikatuko da: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauak zergadunak zergaldian lortutako errenta guztiei aplikatzearen emaitzako batez besteko tasa, errentak non lortu dituen eta ordaintzailearen egoitza non dagoen gorabehera (kontuan hartuko dira behar bezala egiaztatzen diren inguruabar pertsonalak eta familiarrak).

Batez besteko karga tasa bi hamartarrekin eman behar da.

**4.** Zerga kuota kalkulatzeko batez besteko karga tasa aplikatu behar zaio Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den zergadunak likidatzen den zergaldian lortutako errentei dagokien likidazio oinarriaren zatiari; likidazio oinarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauak aplikatuz kalkulatutako da.

**5.** Zergaldia zein den eta Zergaren sortzapena noiz gertatzen den zehazteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan zerga horren zergadunentzat ezarritakoa aplikatu behar da.

**6.** Artikulu honetan arautzen den aukerako araubidea aplikatzen zaien pertsona fisikoek Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun izaten segituko dute.

**7.** Aukerako araubidea ezin zaie inolaz ere aplikatu arau bidez zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde batean bizi diren zergadunei.

**8.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauko 98. artikuluan ezarritako familia unitateetako kide diren zerga honen zergadunek eskatu dezakete aplikatzeko artikulu honetan arautako aukerako araubidea foru arau horretako X. tituluan baterako tributazioaz ezarritakoa kontuan hartuta, arauz ezarritako baldintzak betez gero.

**9.** (2) Artikulu honetan xedatzen dena hauei ere aplikatuko zaie: egoitza Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak hamabosgarren xedapen gehigarriko 3. idatz zatian ezartzen duenaren arabera zerga informazioaren truke efektiboa dagoen Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean duten zergadunei.

**10.** (2) Aukerako araubide hau arautegi baten bidez garatuko da.

**41. artikulua. Behin-behineko likidazioa.**

**1.** Zergak kudeatzen dituzten organoek behin-behineko likidazioa igorri ahal izango dute, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 126. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

**2.** Aurreko idatz zatian adierazitakoa gorabehera Zerga Administrazioak likidazioa bidali ondoren egiaztapen eta ikerketa jarduketak egin ahal izango ditu.

**42. artikulua. Zerga zorraren oinordetza.**

Zergadun bat hilez gero, zerga hau dela eta bete gabe uzten dituen betebeharrak beraren oinordekoek bete behako dituzte, zehapenak izan ezik, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 39. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

**43. artikulua. Zergadunaren ondare erantzukizuna.**

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarengatik sortzen diren zorrak Kode Zibileko 1.365. artikuluan aipatzen direnak bezalakoak izango dira. Beraz, irabazizko ondasunekin zuzenean kitatuko dira ezkontideek Arabako Foru Aldundiarekin kontzeptu horregatik hartutako zorrak.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratuta dauden izatezko bikoteei aplikatzeko ondokoak gertatu behar dira: bikotekideen ondare araubide ekonomikoari Kode Zibileko artikulu hori aplikatzea eta zergadunak establezimendu iraunkorraren bitartez jardutea.

**44. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak.**

Zerga honen arloko arau hausteak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta berau garatzen duen arautegian xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

**45. artikulua. Jurisdikzio ordena.**

Bide ekonomiko-administratiboa agortuz gero, Administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa izango da foru arau honetako gaietako bat dela eta Administrazioaren eta zergadunen, atxikitzaileen eta gainerako zergapekoen artean sortzen diren egitezko eta zuzenbidezko eztabaidak ebazteko eskumena daukan jurisdikzio bakarra.

**46. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketen kenkaria.**

Egoitzaren aldaketa dela eta norbait zergadun bihurtzen ba, zerga honen atxikipentzat edo konturako sarreratzat hartuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura urte hasieratik Zerga Administrazioaren aurrean bizilekua aldatu dela frogatu arte egindako ordainketak, baldin eta ordainketok zergadunak jasotako zerga honen kargapeko errentei badagozkie.

**XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lehenengoa. Arautegiko aipamenak.**

Foru arau honen bidez Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 19ko 7/1999 Foru Araua indargabetu da; arau horretaz Arabako Lurralde Historikoko zerga arautegian egiten diren aipamen guztiak foru arau honetako xedapenei dagozkiela pentsatu behar da.

**Bigarrena. Kapitala murriztea edo jaulkipen prima banatzea.**

Akzioen eta partaidetzen jaulkipenaren prima banatzearen edo kapitala murriztearen ondoriozko etekinei ez zaie aplikatuko Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren atxikipenik ez konturako sarrerarik. Arau bidez kasu hauetan atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharra ezarri ahal izango da.

**Hirugarrena. Ondare sozietateen mozkinen banaketa eta partaidetzen eskualdaketa Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan.**

**1.** Ondare sozietateen araubide berezia aplikatu den ekitaldietan lortutako mozkinak banatzen badira, direnak direla sozietateak lortutako mozkinak banatzen dituen erakundea, mozkinak banatu diren unea eta erakundeei orduan aplikatzen zaien zerga araubidea, establezimendu iraunkorra dutela Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun diren pertsona fisikoek Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko dute.

**2.** Ondare sozietateetako partaidetzak eskualdatzen badira, direnak direla eskualdaketa gertatzen den unea eta orduan erakundeei aplikatzen zaien zerga araubidea, baldin eta eskualdatzailea establezimendu iraunkorra daukan pertsona fisikoa bada eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergaduna bada, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarriko 2. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko da.

**Laugarrena.** (6) (7) **Adiskidetasunezko prozedurak.**

**1.** Nazioarteko hitzarmen edo itunben bat aplikatzean beste estatu batzuetako administrazioekin sortzen diren gatazkak bertan ezarritako adiskidetasunezko

prozedurak aplikatuz ebatziko dira. Hala ere, horrek ez du eragozten bidezko errekurtsoak eta erreklamazioak jartzeko eskubidea.

**2.** Xedapen gehigarri honetan ezartzen dena honako hauei ere aplikatuko zaie: errenten (eta behar den kasuetan ondarearen) gaineko zergapetze bikoitza ezabatzeko nazioarteko itun eta hitzarmenen ondorioz Europar Batasuneko beste estatu batzuekin sortzen diren auziak konpontzeko mekanismoei (Kontseiluaren 2017ko urriaren 10eko 2017/1852 Zuzentaraua (EB), Europar Batasuneko zergen arloko auziak konpontzeko mekanismoei buruzkoa).

**3.** Adiskidetasunezko prozeduretan bi administrazioren artean lortzen diren akordioak irmo bihurtutakoan aplikatuko dira.

Hori dela eta, akordioa honako egun honetan bihurtzen da irmo: agintaritza eskudunek ukitutako gainerako estatuetako agintaritza eskudunei pertsona interesdunek bertan ezartzen dena onartzen dutela eta, behar denean, adiskidetasunezko prozedura aplikatzen den zerga betebeharraren elementuen inguruan errekurtsoa aurkezteko eskubideari uko egiten diotela adierazteko bidaltzen dieten azken jakinarazpena jasotzen den egunean. Dagoeneko errekurtsoren bat aurkeztu bada, akordioa honako kasu honetan baino ez da irmo bihurtuko: ukitutako pertsonakfrogatzen badie ukitutako gainerako estatuetako agintaritza eskudunei neurriak ezarri direla adiskidetasunezko prozedura aplikatzen den zerga betebeharraren elementuen inguruko errekurtsoagelditzeko.

**4.** Hori dela eta, araudian ezarriko da adiskidetasunezko prozedurak ebazteko eta haien ondoriozko akordioak aplikatzeko prozedura.

**5.** Akordioen kontra ezin da jarri errekurtsorik; hala ere, akordioa aplikatzeko ematen diren administrazio egintzen kontra ezarritako errekurtsoak jarri ahal izango dira.

**6.** 1. Adiskidetasunezko prozeduretan, zorraren sarrera automatikoki etengo da interesdunak hala eskatuz gero, baldin eta honako hauek bermatzen badira (arau bidez ezarriko da nola): zorraren zenbatekoa eta etendura eskatzen den unean bidezkoak diren errekarguak.

Ezin da eten zorraren ordainketa, aurreko paragrafoan ezarri den bezala, etendura bide administratiboan edo jurisdikzionalean eska daitekeen bitartean.

2. Aurreko zenbakian aipatzen den etendura automatikoa lortzeko honako berme hauek bakarrik onartuko dira:

a) Diruaren edo balio publikoen gordailua.

b) Kreditu entitate batek edo elkarrekiko bermerako sozietate batek emandako abal edo fidantza solidarioa edo kauzio aseguruaren ziurtagiria.

3. Adiskidetasunezko prozedurak zerga zor guztiari eragiten ez badio, adiskidetasunezko prozedurak eragindako zenbatekoaren sarrera soilik eten ahal izango da.

**7.** Baldin eta, 1. idatz zatian xedatzen denarekin bat etorriz, aldi berean egiten badira nazioarteko hitzarmen edo itunetan arautzen den adiskidetasunezko prozedura bat eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak V. Tituluan arautzen dituen berrikuspen prozeduretako bat, azken hori bertan behera utziko da

harik eta adiskidetasunezko prozedura amaitu arte, baina zerga betebeharraren elementuei dagokienez soilik.

**8.** Ezarritako zehapen baten ondorioz ezin bada hasi adiskidetasuneko prozedurako bitartekaritza fasea, 7. idatz zatian ezartzen dena ez da aplikatuko kasu honetan: zehapenaren kontrako errekurtsoa aurkeztu bada administrazio bidean. Halako kasuetan, ezin izango da hasi adiskidetasunezko prozedurako bitartekaritza harik eta zehapenaren inguruko ebazpen irmoa eman arte administrazio bidea edo bide judizialean.

**9.** 90/436/CEE Hitzarmenarenitzalpeanizapidetzen diren prozeduretan, administrazio bidean edo administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtso edo erreklamazioren bat aurkezten bada 10. idatz zatian aipatzen diren zehapenen kontra, adiskidetasunezko prozeduraren izapideak bertan behera geldituko dira lehen errekurtsoa aurkezten denetik zehapenaren inguruko ebazpen irmoa eman arte administrazio bidean zein bide judizialean.

Aurreko paragrafoan aipatzen den adiskidetasunezko prozedura ezin izango da hasi (eta hasita badago, amaitu egingo da) kasuan kasuko enpresei zehapen irmoa ezarri bazaie xedapen honetako 10. idatz zatian ezartzen denarekin bat etorriz.

**10.** 8. eta 9. idatz zatietan ezartzen denari dagokionez honako hauek izango dira zehapenak:

a) Ogasun Publikoaren kontrako delituengatik (Zigor Kodea, 305. eta 305 bis artikuluak) ezartzen diren zigorrak;

b) 195., 196. eta 197. artikuluetan aipatzen diren arau hausteengatik ezartzen diren zehapenak, baldin eta arau haustean daturen bat ezkutatzen bada, iruzurra erabiltzen bada edo tarteko pertsona batez baliatzen bada, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatzen duenarekin bat etorriz;

c) Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietatearen gaineko zergarenak, 46. artikuluan arautzen dituen arau hausteengatik ezartzen diren zehapenak, baldin eta arau haustean daturen bat ezkutatzen bada edo iruzurra erabiltzen bada, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatzen duenarekin bat etorriz. Hori dela eta, inguruabar horien aipamenak transferentzia prezioen dokumentazioaz egintzat hartu behar dira.

c) letran ezartzen dena gorabehera, 8. eta 9. idatz zatietan ezartzen denari dagokionez ez da zehapentzat hartuko dokumentazio osoa ez aurkezteagatik ezartzen den zehapena, baldin eta horren ondorioz ez bada asko zailtzen merkatu balioa zehaztea.

**11.** Xedapen honetan aipatzen diren prozedurek beren araudi berezia dute; nolanahi ere, zergen arloko arautegia ere aplikatuko zaie, osagarri modura, bidezkoa denean.

**12.** Arabako Foru Aldundiak edukiko du eskumena aholku batzordearen eraketaren eta jardunaren inguruko egitekoetan aritzeko (egiteko horiek arautegian zehaztuko dira).

**13.** Adiskidetasunezko prozedura baten esparruan eratzen den aholku batzordeko edo konponketarako batzorde alternatiboko kideek isilpean gorde beharko dituzte egiteko horretan ari direla ezagutzen dituzten zergen arloko datuak, erabat eta zorrotz, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 92. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz. Betebehar hori hausteak legezko erantzukizunak ekar ditzake Arabako araudiaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, behar den kasuetan ukitutako beste estatuetako barne araudia aplikatu ahal izango da, bakoitza bere jurisdikzioan

**Bosgarrena. Establezimendu iraunkorrik gabe 2014ko ekitaldian lortzen diren errentek jasango duten karga tasa.**

2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte, biak barne, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko manu hauek aldatuko dira:

**Bat.** Foru arau honetako 25. artikuluko 1. idatz zatiko a) letra honela geratu da:

a) Oro har, ehuneko 24,75.

**Bi.** Foru arau honetako 25. artikuluko 1. idatz zatiko f) letra honela geratu da:

f) Ondoko hauei ehuneko 21eko karga ezarriko zaie:

1. Erakundeen funts propioetako partaidetzek sortzen dituzten dibidenduak eta bestelako etekinak:

2. Norberaren kapitalak hirugarrenei lagata lortzen diren korrituak eta bestelako etekinak:

3. Ondare elementuak eskualdatuta agerian jartzen diren ondare irabaziak.

**Seigarrena. Ondasun higiezin batzuk eskualdatuta lortzen diren ondare irabazien salbuespen partziala.**

Arabako Lurralde Historikoan dauden ondasun higiezinak, 2012ko maiatzaren 12tik abenduaren 31ra bitartean eskuratutakoak, Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik gabe besterenduta lortzen diren ondare irabazien ehuneko 50 kargatik salbuetsita egongo da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko ondoko kasu hauetan: batetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legeko hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriko bigarren paragrafoan ezarritako kasuetan (lege horrek Sozietateen gaineko Zergari, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko legeak partzialki aldatu ditu); bestetik, zergaduna erakundea izanik, Sozietateen gaineko Zergari buruko Legearen testu bategineko hamaseigarren xedapen gehigarriko azpen paragrafoan ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean (testu hori martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

**Zazpigarrena. Loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga berezia.**

**1.** (5) Zerga honen kargapean egongo dira, karga berezi baten bitartez, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, hemezortzigarren xedapen gehigarriko 1. idatz zatiko a) letran azaltzen diren sariak, zergadunek jasotzen dituztenak establezimendu iraunkorra erabili gabe, xedapen horretan ezarritako baldintzekin eta jarraian ezarriko diren berezitasunekin, baldin eta saritutako loteria edo apustuetako dezimoa, frakzioa edo kupoia Araban erosi bada.

**2.** (5) Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren sariei atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatuko zaizkie foru arau honetako 31. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz. Saritutako loteria edo apustuetako dezimoa, frakzioa edo kupoia Araban erosi bada, atxikipena edo konturako sarrera Arabako Foru Aldundiak eskatuko du. Halaber,

honako kasu honetan ere atxikipena edo konturako sarrera egin beharko da: zergapetzebikoitza saihesteko hitzarmena aplikatu ahal bada eta ondorioz saria salbuetsita badago.

Atxikipenaren edo konturako sarreraren tasa ehuneko 20 izango da. Atxikipenaren edo konturako sarreraren oinarria karga bereziaren zerga oinarriaren zenbatekoa izango da.

**3.** Zerga honen kargapeko zergadunek xedapen gehigarri honetan aipatutako sarietako bat lortzen badute, ez dute karga bereziaren autolikidaziorik aurkeztu beharko.

Hala ere, kasu hauetan autolikidazioa aurkeztu beharko da: lortutako sariaren zenbatekoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko hemezortzigarren xedapen gehigarriko 2. idatz zatian ezarritako zenbateko salbuetsia baino gehiago bada edo atxikipenik ez konturako sarrerarik egin ez bada aurreko 2. idatz zati horretan xedatutakoarekin bat etorriz. Halakoetan zerga zorraren zenbatekoa zehaztu eta sartu behar da; Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko du non, nola eta zer epealditan ordaindu behar den.

**4.** Baldin eta karga berezi honen ondorioz Ogasunean egiten diren sarrerak edo jasaten diren atxikipenak zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena aplikatuta egingo edo jasango liratekeenak baino gehiago badira, hitzarmena aplikatzeko eta bidezko itzulketa egiteko eskatu ahal izango da (araudian ezarriko da nola).

Zerga Administrazioak itzulketarako eskaeran adierazitako datuak eman ahal izango dizkio zergadunaren egoitza dagoen estatuari, elkarri laguntzeko arauetan ezarritakoarekin bat etorriz eta haietan finkatutako mugak errespetatuz.

**5.** Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren esparruan, xedapen gehigarri honetan aipatzen diren sariak, zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituztenak, karga berezi honekin baino ezin izango dira kargatu.

**Zortzigarrena. (2) Salbuespena ohiko etxebizitzan berrinbertsioa egiteagatik.**

**1.** Kargatik salbuetsita gera daitezke egoitza Europar Batasuneko estatu batean duten zergadunek Arabako Lurralde Historikoan eduki duten ohiko etxebizitza eskualdatuta lortzen dituzten ondare irabaziak, baldin eta eskualdaketak sortutako zenbateko osoa beste ohiko etxebizitza bat eskuratzeko berrinbertitzen badute. Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketan jasotako zenbateko osoa baino gutxiago bada, berrinbertitutako zenbatekoari dagokion ondare irabaziaren zati proportzionala soilik geratuko da zergapetu gabe.

**2.** Aurreko idatz zatian ezartzen dena aplikatzeko kontuan edukiko da azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak eta sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren legeak modu partzialean aldatzen dituenak, 38. artikuluan xedatzen duena, eta hura garatzen duen araudia ere bai.

**3.** Horrez gainera 25. artikuluko 2. idatz zatian arautzen den atxiki beharra ere aplikatuko da, eta autolikidazioa aurkeztu beharra eta horren ondoriozko zerga zorra ordaindu beharra ere bai (foru arau honetako 28. artikuluko 1. idatz zatia). Nolanahi ere, berrinbertsioa (zenbateko osoa edo zati bat) autolikidazioa aurkezteko ezarritako epealdiko azken eguna baino lehen egiten bada, kontuan hartu ahal izango da zerga kuota zehazteko.

**4.** Xedapen honetan ezartzen dena hauei ere aplikatuko zaie: egoitza Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak hamabosgarren xedapen gehigarriko 3. idatz zatian ezartzen duenaren arabera zerga informazioaren truke efektiboa dagoen Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean duten zergadunei.

**5.** Bidezko itzulketa eskatzeko bete beharreko baldintzak arautegian ezarriko dira.

**Bederatzigarrena. (2) Zerga informazioaren truke efektiboa.**

Foru arau honetan "Espainiarekin nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko hitzarmena (informazioa trukatzeko klausula daukana) edo zergei buruzko informazioa trukatzeko akordioa sinatuta duten Europako Esparru Ekonomikoko estatuak" aipatzen direnean, testua estatu hauez ari dela ulertu behar da: "Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak hamabosgarren xedapen gehigarriko 3. idatz zatian ezartzen duenaren arabera zerga informazioaren truke efektiboa dagoen Europako Esparru Ekonomikoko estatuak".

**Hamargarrena. (4) 2015ean aplikatuko diren karga tasak.**

2015. urtean, uztailaren 12a baino lehen sortutako zergetarako, karga tasa ez da izango foru arau honetako 25. artikuluko 1. idatz zatiko a) eta f) letretan ezartzen dena, ehuneko 19, baizik eta ehuneko 20. Tasa horiek ehuneko 19,5ekoak izango dira zerga egun horretatik aurrera sortzen bada.

**Hamaikagarren xedapen gehigarria. (10) Zehapen araubidea.**

Establezimendu iraunkor baten bidez errentak lortzen dituzten zergadunei abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 133. eta 133 bis artikuluetan xedatzen duena aplikatuko zaie.

**Hamabigarrena. (10) Sistema informatikoa erabiltzea sustatzeko kenkaria.**

Foru arau honetako 19. artikuluko 4. idatz zatiko a) letran aipatzen diren kenkariez gainera, establezimendu iraunkor baten bidez errentak lortzen dituzten zergadunek abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, hogeita seigarren xedapen gehigarrian arautzen duen kenkaria ere aplikatu ahal izango dute.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehenengoa. (9)**

Pertsona fisikoak diren establezimendu iraunkorrik gabeko zergadunei martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren testu bategineko xedapen iragankor bakarrean ezarritakoa aplikatuko zaie.

**Bigarrena. (9) 14.1.g artikuluaren salbuespenaren araubide iragankorra.**

14. artikuluaren 1. apartatuaren g) letran aipatzen den salbuespena 2021ean, 2022an, 2023an, 2024an eta 2025ean aplikatuko zaie 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako partaidetzei, haien eskuratze balioa 20 milioi eurotik gorakoa bada; ez da beharrezkoa izango partaidetza zuzena edo zeharkakoa kapitalaren ehuneko 5era iristea, betiere artikulu horretan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira.

## AZKEN XEDAPENAK

### Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. Establezimendu iraunkor bidez dihardduten zergadunen kasuan, foru arau hau 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da.

### Bigarrena. Arauak emateko gaikuntza.

Foru Aldundiari eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari baimena eman zaie foru arau hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

## OHARRAK

(1) Ikusi ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauko bosgarren xedapen gehigarria.
(ALHAO, 74. zk., 14-7-2koa).

(2) 1/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 10ekoa.
(ALHAO, 36. zk., 15-3-25ekoa).

(3) Ikusi 1/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 10ekoa: bigarren xedapen iragankorra, Bat idatz zatia; azken xedepenetako lehenengoa, e) letra.
(ALHAO, 36. zk., 15-3-25ekoa).

(4) 2/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 21ekoa.
(ALHAO, 90. zk., 15-07-31koa).

(5) 3/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 23koa.
(ALHAO, 125. zk., 18-10-31koa).

(6) 25/2019 Foru Araua, abenduaren 20koa.
(ALHAO, 149. zk., 19-12-30ekoa).

(7) 3/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, martxoaren 24koa.
(ALHAO, 38. zk., 20-04-01ekoa).

(8) 1/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 2koa.
(ALHAO, 16. zk., 21-2-10ekoa).
4/2021 Foru Araua, otsailaren 17koa, otsailaren 2ko 1/2021 Zerga Premiazko Araugintzako dekretua baliozkotzearena.
(ALHAO. 23. ZK. 21-2-26koa).

(9) 2/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 2koa.
(ALHAO, 28. zk., 21-3-10ekoa).
9/2021 Foru Araua, martxoaren 17koa, martxoaren 2ko 2/2021 Zerga Premiazko

Araugintzako dekretua baliozkotzearena.
(ALHAO. 35. ZK. 21-3-29koa).

(10) 13/2021 Foru Araua, apirilaren 21ekoa.
(ALHAO, 46. zk., 21-04-30ekoa).

(11) 7/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, azaroaren 2koa.
(ALHAO, 128. zk., 21-11-10ekoa).
26/2021 Foru Araua, azaroaren 24koa, azaroaren 2ko 7/2021 Zerga Premiazko Araugintzako dekretua baliozkotzearena.
(ALHAO. 138. ZK. 21-12-3koa).

(12) 24/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa.
(ALHAO, 150. zk., 22-12-30ekoa).

(13) 26/2023 Foru Araua, abenduaren 22koa.
(ALHAO, 150. zk., 23-12-29koa).